

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

336

EBAZPENA, 2022ko abuztuaren 17koa, Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez berrikusi eta aldatzen baita Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación de Residuos (SADER) SAri emandako ingurumen-baimen integratua, Bilboko (Bizkaia) udalerrian hondakinak kudeatzeko eta ongarriak ekoizteko.

EGITATEAK

1.– Ingurumeneko sailburuordearen 2008ko urtarrilaren 14ko Ebazpenaren bidez, Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación de Residuos (SADER) SAri ingurumen-baimen integratua eman zitzaion, Bilboko (Bizkaia) udalerrian hondakinak kudeatzeko eta ongarriak ekoizteko.

2.– Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuaren 2008ko uztailaren 14ko Agindua-
ren bidez, ezetsi egin zen Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación de Residuos (SADER) SAK 2008ko urtarrilaren 14ko Ebazpenaren aurka aurkeztutako gora jotzeko errekur-
tsoa, epez kanpo aurkeztu baitzen.

3.– Ingurumeneko sailburuordearen 2008ko uztailaren 16ko Ebazpenaren bidez, aldatu egin zen Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación (SADER) SAri Bilboko (Bizkaia) uda-
lerrian hondakinak kudeatzeko eta ongarriak ekoizteko emandako ingurumen-baimen integratua.

4.– Ingurumeneko sailburuaren 2009ko ekainaren 23ko Aginduaren bidez ebatzi zen Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación de Residuos (SADER) SAK Ingurumeneko sailbu-
ruordearen 2008ko uztailaren 16ko Ebazpenaren aurka aurkeztutako gora jotzeko errekur-
tsoa.

5.– Ingurumeneko sailburuordearen 2011ko abenduaren 16ko Ebazpenaren bidez, aldatu eta eraginkor egin zen Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación (SADER) SAri Bilboko (Bizkaia) udalerrian hondakinak kudeatzeko eta ongarriak ekoizteko emandako ingurumen-bai-
men integratua.

6.– 2012ko urriaren 1eko Ebazpenaren bidez, aldatu egin zen Sociedad Anónima de Desconta-
minación y Eliminación SAri emandako 16-I-01-0000000000044 ingurumen-baimen integratua, eta Producción de Fertilizantes SAUri eskualdatu zitzaion Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAri Bilboko (Bizkaia) udalerrian ongarriak ekoizteko emandako ingurumen-baimen integratua.

7.– Ingurumeneko sailburuordearen 2014ko maiatzaren 20ko Ebazpenaren bidez, aldatu egin zen Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAri emandako 16-I-01-0000000000044 ingurumen-baimen integratua. Aldaketa horren bidez, olio iragazteko sistema berri bat txertatu zen, hondakin oliotsuak tratatzeko prozesuaren eraginkortasuna hobetzeko.

8.– Ingurumeneko sailburuordearen 2018ko martxoaren 15eko jakinarazpenaren bidez, aldatu egin zen Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAri emandako 16-I-01-0000000000044 ingurumen-baimen integratua. Aldaketa horren bidez, hondakin ongarriez gain, beste batzuk sartu ziren kudea zitzakeenen artean; hala, hondakinen EHZ kode berriak txertatu ziren transferentzia-zen-
troan eta tratamendu-lerro hauetan: hondakin likido eta/edo oretsu oliotsuen tratamendu-lerroa,

solidotze-egonkortzeko tratamendu-lerroa, bainu azidoak neutralizatzeko lerroa, lohiak tratatzeko eta egokitzeko lerroa, eta kromo VI bainuak erreduzitzeko lerroa.

9.– Ingurumeneko sailburuordearen 2020ko martxoaren 7ko Ebazpenaren bidez, aldatu egin zen ingurumen-baimen integratua, funtsezkotzat jotzen ez den aldaketa hau egiteko instalazioan: EHZ 10 09 07* kodedun hondakin arriskutsua (galdaketa-ar eta -moldeak, substantzia arriskutsuko isurketak dauzkatenak) solidotze-egonkortzeko lerroan kudeatu beharreko hondakin berriztat har- tzea, ez baititu balorizaziorako izan behar diren ezaugarriak.

10.– Ingurumeneko sailburuordearen 2020ko ekainaren 26ko Ebazpenaren bidez, aldatu egin zen ingurumen-baimen integratua, funtsezkotzat jotzen ez den aldaketa hau egiteko instalazioan: EHZ 10 09 08 kodedun hondakin arriskugabea (EHZ 10 09 07 kodean zehazten ez diren gal- daketa-ar eta -molde isurketadunak) solidotze-egonkortzeko lerroan tratatzeko hondakin gisa sartzea.

11.– Ingurumeneko sailburuordearen 2020ko uztailaren 3ko Ebazpenaren bidez, aldatu egin zen ingurumen-baimen integratua, funtsezkotzat jotzen ez den aldaketa hau egiteko instalazioan: EHZ 19 01 07* kodedun hondakin arriskutsua (gasen tratamenduan sortutako hondakinak) trans- ferentzia-zentroan sartzea, kudeatzaile baimenduari bidaltzeko, solidotze-egonkortzeko lerroan erabat kudeatu ezin den kasuetan.

12.– Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen 2021eko martxoaren 17ko Ebazpenaren bidez, aldatu egin zen ingurumen-baimen integratua, funtsezkoak ez diren aldaketa hauek egiteko instalazioan:

– BBUPK jakinarazitako isurketa-baimenaren aldaketa Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAre ingurumen-baimen integratuan sartzea.

– Hondakin likido eta/edo oretsu oliotsuen egungo tratamendu-lerroa bitan bereiztea.

– Hondakin arriskutsuak tratatzeko lerroen ahalmenak birbanatzea eta hondakin arriskutsuak tratatzeko ahalmena handitzea, urtean 3.650 tonako mugara iritsi arte.

– Hondakin arriskugabeak tratatzeko ahalmena argitzea, orain arte zehaztu gabe baitzegoen ingurumen-baimen integratuan.

– Hondakin arriskugabeen EHZ berriak sartzea eta hondakin arriskugabeak tratamendu-lerroen arabera banatzea.

13.– 2021eko uztailaren 13an, ingurumen-organoak, baimena berrikuste aldera, honako hauek igortzeko eskatu zion Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAri: instalazioaren funtzionamenduaren eta ondorioetan deskribatutako teknika erabilgarri onenen arteko alderaketa bat eta instalazioari buruzko beste dokumentu batzuk.

14.– 2021eko irailaren 29an, Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK ingu- rumen-baimen integratua berrikusteko eskatua zitzaion dokumentazioa aurkeztu zuen, eskatutako luzapena lortu ondoren.

15.– Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen 2021eko urriaren 11ko Ebazpenaren bidez, aldatu egin zen ingurumen-baimen integratua, funtsezkotzat jotzen ez den aldaketa hau egiteko instalazioan: EHZ 16 11 03* kodedun hondakin arriskutsua (substantzia arriskutsuak dituzten prozesu metalurgikoetako beste estaldura eta erregogor batzuk) solidotze-egonkortzeko prozesuetan eta transferentzia-zentroan sartzea.

16.– Aurkeztutako dokumentazioa nahikoa zela ikusi eta gero, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariak 2021eko azaroaren 29an emandako ebazpenaren bidez erabaki zen jendaurrean jartzea, 30 egun baliodunez, Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAri emandako ingurumen-baimen integratuaren berrikuspena, egoki irizten ziren alegazioak aurkezteko, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 2021eko abenduaren 16an.

17.– Ingurumen-baimen integratua jendaurrean jartzeko izapideak amaitutakoan, alegaziorik ez zela aurkeztu egiaztatu zen.

18.– Urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, 2022ko otsailaren 11n, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak txostena eskatu zien Uraren Euskal Agentziari eta Bilboko Udalari, eta 2022ko otsailaren 14an, Bizkaiko Osasun Publikoari.

19.– 2022ko otsailaren 16an, Bizkaiko Osasun Publikoko Zuzendaritzak txostena egin zuen, eta espedientean jaso da txosten horren emaitza.

20.– Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen 2022ko martxoaren 3ko Ebazpenaren bidez, aldatu egin zen ingurumen-baimen integratua, funtsezkotzat jotzen ez den aldaketa hau egiteko instalazioan: EHZ 10 03 19*, 10 03 23*, 11 01 09*, 12 01 09*, 12 01 14*, 13 05 02* eta 19 02 05* kodedun hondakin berriak transferentzia-zentroan kudeatu beharreko hondakintzat hartzea, etorkizunean instalazioko beste lerro batean tratatutako hondakinak isurtzeko ahalmena mugatuta dagoenerako.

21.– 2022ko uztailaren 15ean, Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK baimena aldatzeko eskatu zuen, honako hauek egiteko:

- 1) Bainu azidoak tratatzeko lerroaren izena aldatzea.
- 2) EHZ berria sartzea.
- 3) IBIren hurrengo apartatuak aldatzea.
- 4) 3. fokuari (ez sistematikoa) baja ematea.

22.– 815/2013 Errege Dekretuak, urriaren 18koak, 16. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, 2022ko apirilaren 26an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak txostena eskatu zion Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari.

23.– 2022ko abuztuaren 3an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 20. artikuluan xedatutakoa betez, Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAren esku utzi zen espedientea; espedientean ageri da emaitza.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– 2007ko urriaren 24an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen urriaren 23ko 26/2007 Legea, Ingurumen Erantzukizunari buruzkoa.

2.– 2008ko abenduaren 23an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen abenduaren 22ko 2090/2008 Errege Dekretua, Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen garapen partzialerako erregelamendua onartzen duena.

3.– 2011ko uztailaren 29an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzkoa.

4.– 2012ko urtarrilaren 23an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 278/2011 Dekretua, abenduaren 27koa, Atmosfera kutsa dezaketen Jardueretarako Instalazioak arautzen dituenak.

5.– 2013ko urriaren 19an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitara eman zen 815/2013 Errege Dekretua, urriaren 18koa, Industriako Emisioen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duena.

6.– 2013ko abenduaren 11n, abenduaren 9ko 21/2013 Legea argitaratu zen, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.

7.– 2014ko abenduaren 18an, Batzordearen 1357/2014 Erregelamendua onartu zen, zeinaren bidez 2008/98/EE Zuzentarauaren II. eranskina ordeztu zen; onartu zen, orobat, Batzordearen 2014/955/EB Zuzentaraua (Hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia aldatzekoa), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauarekin bat etorritz.

8.– 2015eko otsailaren 21ean, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretua, tresna elektriko eta elektronikoaren hondakinei (TEEH) buruzkoa; bertan, zenbait betekizun eta baldintza tekniko ezartzen dira tresna elektronikoko eta elektronikoaren hondakinak kudeatzen dituztenentzat.

9.– 2015eko ekainaren 25ean, ekainaren 25eko 4/2015 Legea onartu zen, Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzekoa.

10.– 2016ko abenduaren 31n, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

Testu bategin horren 26. artikuluan ezarrita dago zer baldintza behar diren baimena berrikusteko. Horri jarraituz, lau urteko epean, instalazioaren jarduera nagusiari dagozkion teknika erabilgarri onenen (TEO) inguruko ondorioak argitaratzen direnetik aurrera, organo eskudunak bermatuko du instalazioaren baimenaren baldintza guztiak berrikusiko direla eta, beharrezkoa bada, egokituko direla, bai eta instalazioak erreferentziazko TEO agiriaren ondorio aplikagarriak betetzen dituela ere.

11.– 2018ko abuztuaren 17an, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Batzordearen 2018ko abuztuaren 10eko Betearazpen Erabakia, zeinaren bidez ezartzen baitira hondakinak tratatzeko teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauaren arabera (2018/1147/EB Erabakia).

12.– 2017ko urriaren 30ean, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen urriaren 23ko APM/1040/2017 Agindua, Ingurumen Erantzukizunaren urriaren 23ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotako jardueretan –ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren bidez 1. eta 2. lehen-tasun-mailakotzat sailkatuetan– nahitaezko finantza-bermea eratzea noiztik eska daitekeen ezartzen duena eta aipatutako agindu horren eranskina aldatzen duena.

13.– 2019ko urriaren 15ean, urriaren 10eko TEC/1023/2019 Agindua argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean, zeinetan ezartzen baita noiztik aurrera eskatu ahal izango zaien nahitaezko finantza-bermea Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotako jarduerari –ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren bidez 3. lehen-tasun-mailakotzat sailkatuak–.

14.– 2020ko urtarrilaren 22an eta otsailaren 4an, hurrenez hurren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ziren honako hauek: 209/2019 Dekretua, abenduaren 26koa, zeinaren bidez garatzen baita Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea; eta 2020ko urtarrilaren 23ko Agindua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez jarraibide tekniko bat onartzen baita, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa interpretatzeari eta aplikatzeari buruzkoa, lurzoruaren eta lurpeko uren egoera zehazteko oinarritzko txosten bat eskatzeari lotua.

15.– 2020ko urtarrilaren 27an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 4/2020 Dekretua, urtarrilaren 21ekoa, zeinaren bidez indargabetu egiten baita irailaren 25eko 183/2012 Dekretua, Ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzeko eta ingurumeneari eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa sortzeko eta arautzeko dena.

16.– 2020ko ekainaren 19an, Estatuko lurraldean hondakinen garraioa arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean.

17.– 2021eko azaroan, Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Plana onartu zen.

18.– 2022ko apirilaren 9an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Hondakinen eta lurzoru kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legea, Ekonomia zirkularra bultzatzekoa.

Aipatutako legeria, eta gai honetan aplikagarri diren gainerako xedapen guztiak aintzat hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación de Residuos SAri Bilboko (Bizkaia) udalerrian hondakinak kudeatzeko eta ongarriak ekoizteko eman zitzaion ingurumen-baimen integratua berrikustea. Baimen hori 2008ko urtarrilaren 14ko Ebazpenaren bidez eman zen, Batzordearen 2018ko abuztuaren 10eko Betearazpen Erabakian jasotako baldintzetan.

Bigarrena.– Aldatzea Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación de Residuos SAri 2008ko maiatzaren 05eko Ebazpenaren bidez hondakinak kudeatzeko eta ongarriak ekoizteko eman zitzaion ingurumen-baimen integratua. Aldaketa horren ondorioz, honela idatzita geratzen dira ebazpen horren lehenengo eta bigarren apartatuak:

«Lehenengoa.– Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAri (egoitza soziala: Arsenalbidea 19, Bilbo, Bizkaia; IFK: A-48208581) ingurumen-baimen integratua ematea Bilboko (Bizkaia) udalerrian hondakinak kudeatzeko, ebazpen honen bigarren apartatuan ezarritako baldintzekin.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 1. eranskinaren arabera, jarduera hori 5.1 kategorian dago sartuta: «Hondakin arriskutsuak balorizatzeko edo ezabatze instalazioak», egunean 10 tona baino gehiago tratatzeko ahalmena dutenak.

Hondakin arriskutsuen eta arriskugabeen balorizazioa eta ezabapena modu argian bereizitako bi prozesutan gauzatzen da, eta aldi baterako biltegitratze-jarduera ere gauzatzen da.

2023ko urtarrilaren 20a, ostirala

Tratamendu-prozesua	Tratamendu-lerroa	Urteko tratamendu-ahalmen maximoa guztira (t/urte)	
		Hondakin arriskutsuak	Hondakin arriskugabeak
Likidoen tratamendu fisiko-kimikoa	Hondakin likido eta/edo oretsu oliotsuen tratamendua	3.000	0
	Emultsioen eta ur oliotsuen tratamendua	1.500	12.000
	Bainu azidoen neutralizazioa	3.000	0
	Lohien tratamendu eta egokitzapena	31.640	22.000
	Kromo VI bainuen erredukzioa	2.000	0
Solidoen tratamendu fisiko-kimikoa	Solidotze-egonkortzea	38.000	8.000
Guztira		79.140	42.000

	Biltegiatze-edukiera
Transferentzia-zentroa	125 t

Aipatutako bi prozesu horietako bat prozesu fisiko-kimikoa da, eta bertan, ondorengo tratamendu-lerroak bereizten dira:

- Hondakin likido eta/edo oretsu oliotsuen tratamendua (kudeaketa-eragiketaren kodeak: R1208/R0903).
- Emultsioak eta ur oliotsuak tratatzeko lerroa (kudeaketa-eragiketaren kodeak: R1208/R0903).
- Solidotze-egonkortzeko tratamendu-lerroa (D902 kudeaketa-eragiketa).
- Bainu azidoen neutralizazioa (kudeaketa-eragiketaren kodea: D901).
- Lohien tratamendua eta egokitzapena (kudeaketa-eragiketaren kodea: D901).
- Kromo VI bainuak erreduzitzeko lerroa (kudeaketa-eragiketaren kodea: D901).

Hondakin oliotsu arriskutsuei (olioak, fuel-olioak) aldeztuak tratamendu bat egiten zaie. Tratamendu horretan, hondakinak 80-90 °C-tan berotzen dira sedimentu solidoak banatzeko eta, gero, zentrifugatu egiten dira.

Erabilitako olioien kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuak honela definitzen du «aldeztuak tratamendua»: erabilitako olioetako materia arraroak eta zikinkeriak, esaterako, ura eta sedimentuak, bereiztea, upel zentrifugo edo iragazkien bitartez, edo substantzia kimikoak erantsiz. Era berean, aldeztuak tratamendutzat hartuko da olio erabilitatik frakzio arinak bereiztea, frakzio astunak erregai gisa erabiltzeko zementu-plantetan, beste industria-instalazio egoki batzuetan edo itsas ekipo handietan, indarrean dagoen legeriak erregaietarako eta karburatzaileetarako eskatzen dituen kalitate ekologiko eta industrialeko estandarrak betez. Bestalde, olio erabiliak «berreskuratzea» zera da, behar diren tratamenduak egin eta baimenak lortu ondoren, olio erabilien baliabideak balorizazio material edo energetiko bidez aprobetxatzea xede duen kudeaketa-jardura.

Beraz, aipatutako errege-dekretuarekin bat etorritik, Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK ustiatzen duen olio erabilien tratamendu-lerroa, tratatutako olioaren xedearen arabera, «aurretiazko tratamendu» gisa (kudeaketa-eragiketaren kodea: R12) eta/edo «berreskuratze-tratamendu» gisa (kudeaketa-eragiketaren kodea: R9, olioak leheneratzea edo haiei beste erabilera bat ematea) hartzen da. Tratamendu horietan honako hauek sor daitezke:

- Beste hondakin likido batzuekin batera neutralizaziora bidaltzen den ur berezia.
- Hondakin oliotsuen dekantazio-zentrifugaziotik eratorritako lohiak solidotze-egonkortzeko prozesura bideratu ahal izango dira beren KOG edukia % 8 baino txikiagoa bada; bestela, hondakin arriskutsu gisa kudeatuko dira.
- Frakzio berreskuratua, leheneratzeko instalazio baimenduetara bidaltzen dena.
- Frakzio berreskuratua, balorizazio energetikorako erregai gisa bidaltzen dena.

Emultsioak eta/edo ur oliotsuak (olio-eduki txikia) hondakin motaren arabera egokienak diren tekniketako batzuen bidez tratatzen dira (haustura azidoa, DAF eta abar). Ateratzen den urdun olio hondakin likido eta/edo oretsu oliotsuen tratamendu-lerrora bidaliko da, eta berreskuratutako ura kolektorera isuriko da.

Jasotako azido eta lohiak arbastatzeko sare batetik igarotzen dira bahetuak izateko. Bahetu ondoren, zuzenean injektatzen da kare-esnea lerroan, hondakin horien pH-a neutraliza dadin; FeCl₃ flokulantea ere eranstean da. Hondakin horiek neutralizatu ondoren, prentsa-iragazki baten bitartez iragazten dira eta, horrela, araztu ondoren kolektorera isurtzen den efluente bat eta hondakin solido bat lortzen dira. Hondakin hori solidotze-egonkortzeko tratamendu-prozesura bidaltzen da.

Kromo VI duten lohiak hartzen badira, tratamendu-prozesua honako hau izango da: gatz ferrosoak gehituko dira lohi horiek erreduzitzeko; gero, karearekin neutralizatuko dira eta, ondoren, bainu azidoen tratamendu-lerrora bideratuko dira; hondakin horri prozesu horretarako deskribatu den tratamendu osoa egingo zaio.

Beste tratamendu-prozesua solidotze-egonkortzea da (kudeaketa-eragiketaren kodea: D9). Prozesu horretan prozesu fisiko-kimikoan jasotako hondakinak tratatzen dira, baita antzeko ezaugarriak dauzkaten eta kanpotik jaso diren beste hondakin batzuk ere. Jasotako hondakinak biltegietan eta botiloi mugikorretan pilatu eta sailkatzen dira beren ezaugarrien arabera. Sailkatu ondoren, aldeztu aurretiko tratamendu-eragiketa bat egiten da: produktu xurgatzaileekin nahasten dira. Aurre-nahaste hori nahasgailu batean sartzen da, eta bertan, aglomeratzaile solidotzailea gehitzen zaio, barneko nahasketa egiteko. Azkenik, lortzen den hondakina uhal garraiatzaileen bitartez silo itxi batzuetara eramaten da, eta bertan, 48-60 orduz gogortzen uzten da. Denbora hori igaro ondoren, eta laborategian analizatu eta haren kontrola egin ondoren, hondakin solidotuen-tzako hondakindegia baimenduan ezabatzen da.

Azkenik, Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK aldi baterako biltegi-ratze- eta transferentzia-jarduerak gauzatzen ditu (kudeaketa-eragiketaren kodeak: D1501/R1301); horretarako, transferentzia-zentro bat du. Zentro horrek, gutxi gorabehera 400 m²-ko azalera dauka eta gehienez 125 t biltegi-ratzeko ahalmena; bertan jaso eta biltegi-ratzen dira ekoizlearen instalazioetan aldeztu aurretik ontziratutako hondakinak.

Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK hondakin arriskugabeen kudeaketa-jarduera ere gauzatzen du; jarduera hori honako honetan datza:

- Lohi eta hondakin likido arriskugabeen egokitzapena, egonkortze, hauspeatze, malutapen eta/edo deshidratazio bidez. Tratamendu fisiko-kimikoaren lerroan jarduera hauek egiten dira:

hauspeatzea, malutapena, koagulazioa eta, ondoren, deshidratazioa prentsa-iragazkiaren bidez. Prozesutik ateratzen diren solidoei solidotze-egonkortzeko tratamendua egiten zaie eta, gero, solido horiek kudeatzaile baimenduari bidaltzen zaizkio.

– Hondakin oliotsuak tratatzeko lerroa: soluzioak zentrifugatu egiten dira; gero, zati oliotsua balorizatu egiten da, eta soluzio urtsua aurreko tratamendu fisiko-kimikora bidaltzen da.

– Hondakin arriskugabeak jasotzea, biltegitratzea, banatzea eta balorizatu daitezkeen zatiak sailkatzea. Hiri-hondakin balorizagarriekin parekatu daitezkeen hondakinak banatu eta sailkatzea.

Honako hau da Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK hondakinak tratatzeko egiten duen energia-kontsumoa: 2.615.000 kWh energia elektriko eta 117.000 m³ gas natural.

Sortutako isurketak jatorri hauetako industria-ur gisa sailkatzen dira: taladrinen lerroko efluentea eta olio-eduki txikiko emultsio oliotsuak; karga organiko txikiko hondakin ez-oliotsuen efluentea; eta «hondar» frakzioa (azidoak, Cr VI eta karga organiko handiko hondakinak), ur beltzak, laborategiko isurketak eta kutsadura arrasta dezaketen fabrikako euri-urak tratatzen dituen huts-lurrungailuaren efluentea. Hondakin-ur guztiak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren saneamendu-sarera bideratzen dira.

Isurketak bi depositutara bideratu, eta haietatik kolektorera ponpatzen dira, laborategiak horretarako baimena eman ondoren. Ponpaketa bidezko deskarga neurketa-ekipo hauek dituen kontrol-kutxeta baten bidez egiten da: pH-metroa, termometroa, eroankortasun-neurgailua eta emari-neurgailua.

Sortutako hondakin arriskutsuak eta arriskugabeak ekipoak mantentzeko eta instalazioa zainzeko jarduera orokorretatik datoz, nagusiki.

Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAKen jardueran, teknika erabilgarri onenak aplikatzen dira, zehazki, dokumentu honetan biltzen direnak: «Hondakinen tratamendurako teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandako 2010/75/EB Zuzentarauaren arabera. 2018ko abuztua: 1. TEO, 2. TEO, 3. TEO, 4. TEO, 5. TEO, 6. TEO, 7. TEO, 8. TEO, 11. TEO, 14. TEO, 17. TEO, 18. TEO, 19. TEO, 20. TEO, 21. TEO, 22. TEO, 23. TEO, 24. TEO, 40. TEO, 41. TEO, 42. TEO».

«Bigarrena.– Ondorengo baldintzak eta betekizunak ezartzea Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK Bilboko udalerrian sustatutako hondakinak kudeatzeko eta ongariak ekoizteko jardueretarako.

A) Ingurumen-inpaktuaren adierazpena.

Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK Ingurumen sailburuordearen 1989ko azaroaren 29ko Ebazpenean ezartzen diren baldintzak bete beharko ditu; ebazpen horrek «Hondakin toxikoak eta arriskutsuak tratatzeko Sader enpresak Zorrotzan (Bilbo) duen instalazioa» proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena egiten du.

B) Erantzukizun zibileko aseguria.

Milioi bat eta zortziehun mila (1.800.000) euroko erantzukizun zibileko aseguru bat egin beharko da, eta aseguru horrek estaliko ditu baimen honen xede den jarduera gauzatzearen ondorioz hirugarren pertsonak edo haien ondasunek pairatu ditzaketen kalteak eta aldatutako ingurumena konpondu eta leheneratzeko kostuak.

Aseguru horren zenbatekoa urtero eguneratuko da, eta aurreko 12 hilabeteetako Kontsumoko Prezioen Indizearen (KPI) arabera handituko da.

C) Fidantza.

Laurehun eta laurogeita hamazortzi mila (498.000) euroko fidantza jartzea, Hondakinen eta lurzoru kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legearen, Ekonomia zirkularra bultzatzekoaren, 23.5.b) artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Fidantza horren zenbatekoa hondakinak tratatu eta biltegitzeko gehieneko ahalmenaren arabera zehazten da.

Fidantza horren zenbatekoa urtero eguneratu ahal izango da ingurumen-organo honek horrela eskatuz gero, eta aurreko 12 hilabeteetako Kontsumoko Prezio Indizearen arabera (KPI) handituko da.

D) Administrazioarekiko harremanen arduraduna.

Administrazioarekiko harremanez arduratuko den goi-mailako tituludunaren gainean emandako datuetan aldaketarik badago, Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK horren berri emango dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari.

E) Babes- eta zuzenketa-neurriak.

Babes- eta zuzenketa-neurriak sustatzaileak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala beteko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta honako apartatu hauetan ezarritakoari jarraituz:

E.1.– Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK kudeatzeko diren hondakinak hartu, jaso, ikuskatu eta biltegitzeko baldintza eta kontrolak.

Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK hondakin arriskutsu eta arrisku-gabeak balorizatuko ditu, honako balorizazio-eragiketa hauen bidez: likido eta/edo ore oliotsuen tratamendua eta emultsioen eta ur oliotsuen tratamendua (R12/R9 kudeaketa-eragiketak) eta kloruro ferrikoaren ekoizpena bainu azidoetatik abiatuta (R5 kudeaketa-eragiketa). Aldi baterako biltegitratze-zentro eta transferentzia-zentro gisa ere jarduten du (R13 kudeaketa-eragiketa).

Instalazioan balorizazioa egiteko onartzen diren hondakinak hurrengo apartatuetan daude zehaztuta, horiek behar bezala kudeatzeko zehaztapenekin batera.

Instalazioan tratatu beharrekotzat jotzen den hondakin-jatorri bakoitzeko, operadoreak kasuan kasuko tratamendu-kontratua igorriko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, beharrezkoa bada, hondakina onartzeko parametro mugatzaile edo baldintzatzaileen proposamena erantsita.

Hondakin jakin bat onar daitekeela egiaztatu ondoren, Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK onarpenaren egiaztagiria igorriko dio hondakin horren titularrari; egiaztagiri horretan onarpen horren baldintzak ezarriko dira.

Hondakinak onartu eta jasotzeko aukera egiaztatzeko xedearekin, Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK hondakin horiek onartzeko parametroen egiaztapena ahalbidetuko duten baliabide tekniko eta giza baliabideak izan beharko ditu une oro. Instalazioaren hornidurak aukera eman beharko du, gutxienez ere, honako hauek zehazteko: hondakinaren sugar-puntua, pH-a eta hondakinak urarekin duen erreaktibotasuna, hondakinak guztira duen kloroa eta guztira dituen bestelako organohalogenatuak, PCB/PCTak, kromo hexabalentea, zianuroa, amoniakoa eta fenolak. Onarpena baldintzatzen duten parametroak homologatutako metodo

baten bitartez zehaztu beharko dira kasu guztietan eta hondakin-partida bakoitzeko, laborategiko buru baten ikuskaritzapean. Laborategiko buruak zentroko langilea izan beharko du eta goi titulu espezializatua eduki beharko du.

Ezin izango dira onartu baimen honetan adierazitakoez bestelako hondakinak. Nolanahi ere, beste hondakin batzuk ere kudeatu nahi badira, beharrezkoa izango da alde aurretik Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzaren onespena, ebazpen honen J letran xedatutakoari jarraikiz.

E.1.1.– Hondakin onargarriak.

E.1.1.1.– Hondakin arriskutsu onargarriak.

Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK lehen aipatutako tratamendu-lerroetan kudeatu ahalko ditu lerro bakoitzerako jarraian identifikatutako EHZ kodeei dagozkien hondakinak, baldin eta hondakin horiek apartatu honetan aipatzen diren onarpen-baldintza zehatzak eta erakunde honek onetsitako onarpen-agirian ezarritako onarpen- eta jasotze-baldintzak betetzen badituzte.

a) Hondakin likido eta/edo oretsu oliotsuen tratamendu-lerroa. Olio-eduki handia. (Kudeaketa-eragiketa: R1208/R0903).

EHZ	Hondakinen deskribapena
01 05 05	Hidrokarburoak dauzkaten lohiak eta zulaketen hondakinak
05 01 03	Andelen hondoetako lohiak
05 01 05	Hidrokarburoen isurketak
05 01 06	Instalazioen edo ekipamenduen mantentze-lanetan sortutako lohi oliotsuak
05 01 09	Efluentek in situ tratatzean sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
10 02 11	Hozteko uraren tratamenduan sortutako hondakinak, olioak dauzkatenak
10 03 27	Hozteko uraren tratamenduan sortutako hondakinak, olioak dauzkatenak
10 04 09	Hozteko uraren tratamenduan sortutako hondakinak, olioak dauzkatenak
10 05 08	Hozteko uraren tratamenduan sortutako hondakinak, olioak dauzkatenak
10 06 09	Hozteko uraren tratamenduan sortutako hondakinak, olioak dauzkatenak
10 07 07	Hozteko uraren tratamenduan sortutako hondakinak, olioak dauzkatenak
10 08 19	Hozteko uraren tratamenduan sortutako hondakinak, olioak dauzkatenak
12 01 07	Mekanizazioko olio mineral halogenorik gabeak (emultsioak edo disoluzioak izan ezik)
12 01 09	Mekanizazioko emultsio eta disoluzio halogenorik gabeak
12 01 10	Mekanizazioko olio sintetikoak
12 01 19	Mekanizazioko olio biodegradaerrazak
13 01 05	Emultsio kloratu gabeak
13 01 10	Olio hidrauliko mineral kloratu gabeak
13 01 11	Olio hidrauliko sintetikoak
13 01 12	Olio hidrauliko biodegradaerrazak
13 01 13	Bestelako olio hidraulikoak
13 02 05	Motor-olio, transmisio mekanikoko olio eta olio lubrifikatzaile mineral kloratu gabeak
13 02 06	Motor-olio, transmisio mekanikoko olio eta olio lubrifikatzaile sintetikoak
13 02 07	Motor-olio, transmisio mekanikoko olio eta olio lubrifikatzaile biodegradaerrazak
13 02 08	Bestelako motor-olio, transmisio mekanikoko olio eta olio lubrifikatzaileak
13 03 07	Isolatzeko eta beroa transmititzeko olio mineral kloratu gabeak

EHZ	Hondakinen deskribapena
13 03 08	Isolatzeko eta beroa transmititzeko olio sintetikoak
13 03 09	Isolatzeko eta beroa transmititzeko olio biodegradaerazak
13 03 10	Isolatzeko eta beroa transmititzeko beste olio batzuk
13 04 01	Ur kontinentaletan nabigatzean sortutako saietako olioak
13 04 02	Kaietan jasotako saietako olioak
13 04 03	Bestelako nabigazio-motetan sortutako saietako olioak
13 05 02	Uraren eta substantzia oliotsuen bereizgailuetako lohiak
13 05 03	Hodi biltzaileetako lohiak
13 05 06	Uraren/substantzia oliotsuen bereizgailuetatik datozen olioak
13 05 07	Uraren/substantzia oliotsuen bereizgailuetatik datorren ur oliotsua
13 05 08	Harea kentzeko andeletatik eta uraren/substantzia oliotsuen bereizgailuetatik datozen hondakinen nahastea
13 07 01	Fuel-olioa eta gasolioa
13 07 03	Bestelako erregaiak (nahasteak barne)
13 08 01	Gatzgabetzea egitean sortutako lohiak edo emultsioak
13 08 02	Bestelako emultsioak
13 08 99	Beste kategorietan zehazten ez diren hondakinak
16 07 08	Hidrokarburoak dauzkaten hondakinak
16 10 03	Substantzia arriskutsuak dauzkaten kontzentratu urtsuak
19 02 07	Bereizteko prozesuan sortutako olioak eta kontzentratuak
19 02 08	Substantzia arriskutsuak dauzkaten hondakin erregai likidoak
19 08 10	Ura/substantzia oliotsuak bereiztean sortutako koipe- eta olio-nahasteak, 19 08 09 kodean zehazten ez direnak
19 11 03	Likido urtsuen hondakinak
20 01 26	20 01 25 kodean zehazten ez diren olioak eta koipeak

Adierazitako hondakin motak onartzeko parametro mugatzaileak izango dira horien PCB/PCT edukia, guztizko kloro edukia, bai eta sugar-puntua ere. Parametro horiek ondorengo muga hauek bete beharko dituzte:

- PCB/PCTen edukia 100eko 0,0025 (25 ppm) baino txikiagoa izan behar da (ehunekoa pisuan adierazita).
- Guztizko kloro edukia 2.500 pm baino txikiagoa.
- 70 °C-tik gorako sugar-puntua.

2023ko urtarrilaren 20a, ostirala

b) Emultsioak eta/edo ur oliotsuak tratatzeko lerroa. Olio-eduki txikia. (Kudeaketa-eragiketa: R1208/R0903).

EHZ	Hondakinaren deskribapena
05 01 03	Andelen hondoetako lohiak
05 01 05	Hidrokarbueroen isurketak
05 01 06	Instalazioak edo ekipamenduak mantentzeko operazioetatik eratorritako lohi oliotsuak
05 01 09	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
10 02 11	Hozteko uraren tratamenduan sortzen diren hondakinak, olioak dauzkatenak
10 03 27	Hozteko uraren tratamenduan sortzen diren hondakinak, olioak dauzkatenak
10 04 09	Hozteko uraren tratamenduan sortzen diren hondakinak, olioak dauzkatenak
10 05 08	Hozteko uraren tratamenduan sortzen diren hondakinak, olioak dauzkatenak
10 06 09	Hozteko uraren tratamenduan sortzen diren hondakinak, olioak dauzkatenak
10 07 07	Hozteko uraren tratamenduan sortzen diren hondakinak, olioak dauzkatenak
10 08 19	Hozteko uraren tratamenduan sortzen diren hondakinak, olioak dauzkatenak
11 01 11	Irakuzketako likido urtsuak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
11 01 13	Koipegabetzetik eratorritako hondakinak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
12 01 07	Mekanizazioko olio mineral halogenorik gabeak (emultsioak edo disoluzioak izan ezik)
12 01 09	Mekanizazioko emultsio eta disoluzio halogenorik gabeak
12 01 10	Mekanizazioko olio sintetikoak
12 01 14	Mekanizazioko lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
12 01 18	Olioak dauzkaten lohi metalikoak (esmerilaketa-, artzeketa- eta lapeaketa-prozesuetan sortutako lohiak)
12 01 19	Mekanizazioko olio biodegradaerrazak
12 03 01	Garbiketako likido urtsuak
12 03 02	Lurrun bidezko koipegabetzearen hondakinak
13 01 05	Emultsio kloratu gabeak
13 01 10	Olio hidrauliko mineral kloratu gabeak
13 01 11	Olio hidrauliko sintetikoak
13 01 12	Olio hidrauliko biodegradaerrazak
13 01 13	Bestelako olio hidraulikoak
13 02 05	Motor-olio, transmisio mekanikoko olio eta olio lubrifikatzaile mineral kloratu gabeak
13 02 06	Motor-olio, transmisio mekanikoko olio eta olio lubrifikatzaile sintetikoak
13 02 07	Motor-olio, transmisio mekanikoko olio eta olio lubrifikatzaile biodegradaerrazak
13 02 08	Bestelako motor-olio, transmisio mekanikoko olio eta olio lubrifikatzaileak
13 03 07	Isolatzeko eta beroa transmititzeko olio mineral kloratu gabeak
13 03 08	Isolatzeko eta beroa transmititzeko olio sintetikoak
13 03 09	Isolatzeko eta beroa transmititzeko olio biodegradaerrazak
13 03 10	Isolatzeko eta beroa transmititzeko bestelako olioak
13 04 01	Ur kontinentaletan nabigatzean sortutako saietako olioak
13 04 02	Kaietan jasotako saietako olioak
13 04 03	Bestelako nabigazio motetan sortutako saietako olioak
13 05 02	Uraren eta substantzia oliotsuen bereizgailuetako lohiak
13 05 03	Hodi-biltzaileetako lohiak
13 05 06	Ur eta sustantzia oliotsuen bereizgailuetatik eratorritako olioak
13 05 07	Ur eta substantzia oliotsuen bereizgailuetatik eratorritako ur oliotsua

EHZ	Hondakinaren deskribapena
13 05 07	Ur eta substantzia oliotsuen bereizgailuetatik eratorritako ur oliotsua
13 05 08	Harea kentzeko andeletatik eta uraren/substantzia oliotsuen bereizgailuetatik datozen hondakinen nahastea
13 07 01	Fuel-olioa eta gasolioa
13 07 03	Beste erregai batzuk (nahasteak barne)
13 08 01	Gezatzetik eratorritako lohiak edo emultsioak
13 08 02	Bestelako emultsioak
13 08 99	Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak
16 07 08	Hidrokarburoak dituzten hondakinak
16 10 03	Substantzia arriskutsuak dauzkaten kontzentratu urtsuak
19 02 05	Tratamendu fisiko-kimikoetan sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
19 02 07	Bereizte-prozesuetatik eratorritako olioak eta kontzentratuak
19 02 08	Substantzia arriskutsuak dauzkaten hondakin erregai likidoak
19 08 10	Ura/substantzia oliotsuak bereiztean sortutako koipe- eta olio-nahasteak, 19 08 09 kodean zehazten ez direnak
19 11 03	Likido urtsuen hondakinak
20 01 26	20 01 25 kodean zehazten ez diren olioak eta koipeak

Adierazitako hondakin motak onartzeko parametro mugatzaileak izango dira horien PCB/PCT edukia, guztizko kloro edukia, bai eta sugar-puntua ere. Parametro horiek ondorengo muga hauek bete beharko dituzte:

– PCB/PCTen edukia 100eko 0,0025 (25 ppm) baino txikiagoa izan behar da (ehunekoa pisuan adierazita).

– Guztizko kloro edukia 2.500 pm baino txikiagoa.

– 70 °C-tik gorako sugar-puntua.

c) Solidotze-egonkortzeko tratamendu-lerroa (D902 kudeaketa-eragiketa).

EHZ	Hondakinaren deskribapena
01 03 05	Substantzia arriskutsuak dauzkaten beste arroka antzu batzuk
01 03 07	Mineral metalikoen eraldaketa fisiko eta kimikotik datozen bestelako hondakinak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
01 04 07	Mineral ez-metalikoen eraldaketa fisiko eta kimikotik datozen hondakinak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
01 05 06	Substantzia arriskutsuak dauzkaten lohiak eta zulaketen bestelako hondakinak
03 02 04	Zuraren kontserbatzaile ez-organikoak
04 02 19	Efluentek in situ tratatzean sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
05 01 15	Iragazte-buztin erabiliak
06 01 06	Bestelako azidoak
06 02 01	Kaltzio hidroxidoa
06 02 05	Bestelako baseak
06 03 13	Metal astunak dauzkaten gatz solidoak eta disoluzioak
06 03 15	Metal astunak dauzkaten metal oxidoak

2023ko urtarrilaren 20a, ostirala

EHZ	Hondakinaren deskribapena
06 04 05	Bestelako metal astunak dauzkaten hondakinak
06 05 02	Efluentek in situ tratatzean sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
06 06 02	Sulfuro arriskutsuak dauzkaten hondakinak
06 09 03	Erreakziozko kaltzio-hondakinak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak edo substantzia arriskutsuekin kutsatuta daudenak
06 10 02	Substantzia arriskutsuak dauzkaten hondakinak
07 01 10	Bestelako iragazte-opilak eta xurgatzaile erabiliak
07 01 11	Efluentek in situ tratatzean sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
07 02 01	Garbiketa-likidoak eta likore ama urtsuak
07 02 10	Bestelako iragazte-opilak eta xurgatzaile erabiliak
07 02 11	Efluentek in situ tratatzean sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
07 02 14	Substantzia arriskutsuak dituzten gehigarrietatik eratorritako hondakinak
07 02 16	Silikona arriskutsuak dauzkaten hondakinak
07 03 10	Bestelako iragazte-opilak eta xurgatzaile erabiliak
07 03 11	Efluentek in situ tratatzean sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
07 04 10	Bestelako iragazte-opilak eta xurgatzaile erabiliak
07 04 11	Efluentek in situ tratatzean sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
07 04 13	Substantzia arriskutsuak dauzkaten hondakin solidoak
07 05 10	Bestelako iragazte-opilak eta xurgatzaile erabiliak
07 05 11	Efluentek in situ tratatzean sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
07 05 13	Substantzia arriskutsuak dauzkaten hondakin solidoak
07 06 10	Bestelako iragazte-opilak eta xurgatzaile erabiliak
07 06 11	Efluentek in situ tratatzean sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
07 07 10	Bestelako iragazte-opilak eta xurgatzaile erabiliak
07 07 11	Efluentek in situ tratatzean sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
08 01 11	Disolbatzaile organikoak edo beste substantzia arriskutsu batzuk dituzten pintura- eta berniz-hondakinak
08 01 13	Disolbatzaile organikoak edo beste substantzia arriskutsu batzuk dituzten pintura- eta berniz-lohiak
08 03 14	Substantzia arriskutsuak dituzten tinten lohiak
08 01 15	Pintura edo berniza duten lohi urtsuak, disolbatzaile organikoak edo beste substantzia arriskutsu batzuk dauzkatenak
08 04 09	Disolbatzaile organikoak edo beste substantzia arriskutsu batzuk dituzten itsasgarri eta zigilatzaileen hondakinak
09 01 02	Inprimatzeko plakak errebelatzeko ur-disoluzioak
10 01 04	Hidrokarburoen galdarako hautsa eta errauts hegalaria
10 01 16	Koerreaktore sortzen diren errauts hegalaria, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
10 01 13	Erregai gisa erabilitako hidrokarbuero emulsionatuen errauts hegalaria
10 01 14	Labearen hondoko errautsa, zepak eta galdara-hautsa, koerreaktore sortuak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak.
10 01 20	Efluentek in situ tratatzean sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
10 01 22	Galdarak garbitzean sortutako lohi urtsuak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
10 02 07	Gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
10 02 13	Gasen tratamenduan sortutako lohiak eta iragazte-opilak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
10 03 19	Gas-efluenteetatik datozen partikulak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
10 03 21	Bestelako partikulak eta hautsa (ehotze-prozesuko hautsa barne), substantzia arriskutsuak dauzkatenak
10 03 23	Gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
10 03 25	Gasen tratamenduan sortutako lohiak eta iragazte-opilak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak

2023ko urtarrilaren 20a, ostirala

EHZ	Hondakinaren deskribapena
10 04 04	Gas-efluenteetatik datozen partikulak
10 04 05	Bestelako partikulak eta hautsak
10 04 06	Gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak
10 05 03	Gas-efluenteetatik datozen partikulak
10 05 05	Gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak
10 05 06	Gasen tratamenduan sortutako lohiak eta iragazte-opilak
10 06 03	Gas-efluenteetatik datozen partikulak
10 06 06	Gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak
10 06 07	Gasen tratamenduan sortutako lohiak eta iragazte-opilak
10 08 15	Gas-efluenteetatik datozen partikulak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
10 08 17	Gasen tratamenduan sortutako lohiak eta iragazte-opilak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
10 09 07	Galdaketa-ar eta -molde galdadunak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
10 09 09	Gas-efluenteetatik datozen partikulak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
10 09 08	Galdaketa-ar eta -molde galdadunak, 10 09 07 kodean zehazten ez direnak
10 09 11	Substantzia arriskutsuak dauzkaten bestelako partikulak
10 09 13	Substantzia arriskutsuak dauzkaten hondar-aglutinatzaileak
10 09 15	Pitzadura adierazten duten agenteen hondakinak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
10 10 09	Gas-efluenteetatik datozen partikulak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
10 10 11	Substantzia arriskutsuak dauzkaten bestelako partikulak
10 10 13	Substantzia arriskutsuak dauzkaten hondar-aglutinatzaileak
10 10 15	Pitzadura adierazten duten agenteen hondakinak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
10 11 09	Egoste-prozesua baino lehen nahasteak prestatzean sortutako hondakinak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
10 11 15	Errekuntza-gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
10 11 17	Gasen tratamenduan sortutako lohiak eta iragazte-opilak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
10 11 19	Efluenteak in situ tratatzean sortutako hondakin solidoak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
10 12 09	Gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
10 13 12	Gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
11 01 08	Fosfatazio-lohiak
11 01 09	Lohiak eta iragazte-opilak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
11 01 11	Irakuzketako likido urtsuak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
11 02 02	Zinkaren hidrometalurgiako lohiak (jarosita eta goethita barne)
11 02 07	Substantzia arriskutsuak dauzkaten bestelako hondakinak
11 03 02	Bestelako hondakinak
11 05 03	Gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak
12 01 14	Mekanizazioko lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
12 01 16	Granailaketaren edo zorrotadaren hondakinak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
12 01 18	Olioak dauzkaten lohi metalikoak (esmerilaketa-, artezketa- eta lapeaketa-prozesuetan sortutako lohiak)
13 05 01	Area kentzeko andeletatik eta uraren/substantzia oliotsuen bereizgailuetatik datozen solidoak
15 02 02	Xurgatzaileak, iragazteko materialak (beste kategoria batean aipatzen ez diren olio-iragazkiak barne), garbitzeko zapiak eta babesteko arropak, substantzia arriskutsuekin kutsatuta daudenak
16 03 03	Substantzia arriskutsuak dauzkaten hondakin ez-organikoak
16 07 09	Beste sustantzia arriskutsu batzuk dituzten hondakinak
16 10 03	Substantzia arriskutsuak dauzkaten kontzentratu urtsuak
16 11 03*	Prozesu metalurgikoetatik datozen bestelako estaldurak eta erregogorak, substantzia arriskutsuak dauzkatena

EHZ	Hondakinaren deskribapena
17 05 03	Substantzia arriskutsuak dauzkan lurra
17 09 03	Eraikuntzako eta eraispenerako bestelako hondakinak (hondakin nahastuak barne), substantzia arriskutsuak dauzkatena
19 01 05	Gasen tratamenduko iragazte-opila
19 01 07	Gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak
19 01 11	Substantzia arriskutsuak dauzkatena zepak eta labe-hondoko errautsak
19 01 13	Substantzia arriskutsuak dauzkatena errauts hegalaria
19 01 15	Substantzia arriskutsuak dauzkan galdarako hautsa
19 01 17	Substantzia arriskutsuak dauzkatena pirolisi-hondakinak
19 02 04	Aurrez nahastutako hondakinak, gutxienez hondakin arriskutsu batez osatuak
19 02 05	Tratamendu fisiko-kimikoetako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
19 02 11	Substantzia arriskutsuak dauzkatena bestelako hondakinak
19 08 07	loi-trukatzaileak leheneratzen sortutako soluzioak eta lohiak
19 08 08	Mintz-sistemetatik datozen hondakinak, metal astunak dauzkatena
19 08 10	Ura/substantzia oliotsuak bereiztean sortutako koipe- eta olio-nahasteak, 19 08 09 kodean zehazten ez direnak
19 08 13	Industriako ur zikinen bestelako tratamenduetan sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
19 10 05	Substantzia arriskutsuak dauzkatena bestelako frakzioak
19 11 01	Iragazte-buztin erabiliak
19 11 07	Gas-efluenteak araztean sortutako hondakinak
19 13 01	Lurzoruak leheneratzen sortutako hondakin solidoak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
19 13 03	Lurzoruak leheneratzen sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
19 13 05	Lurpeko urak leheneratzen sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
19 13 07	Likido urtsuen eta kontzentratu urtsuen hondakinak, substantzia arriskutsuak dauzkatena, lurpeko urak leheneratzearen ondorioz sortutakoak

Zerrendatutako hondakinak tratamendu-lerro honetan onartzeko parametro mugatzailea izango da hondakin horiek duten karbono organikoaren guztizkoa (KOG). Eduki horrek % 8 baino txikiagoa izan beharko du tratamendutik sortzen den hondakinarentzako aurrez ikusten den helburua hondakina inertizatutako hondakinarentzako zabortegei baimenduan suntsitzea denean.

10 09 08 hondakina kasu honetan soilik onartuko da: lixibiazio-entseguko KOD parametroaren balioa hondakin arriskugabeen zabortegean onartzeko muga-balioa halako hiru edo handiagoa denean.

Muga hori gainditzen duten hondakinen kasuan, Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK justifikatu egin beharko du, ingurumen-organoaren aurrean, prozesuan zehar erabili beharreko erreaktiboaren izaera eta kantitatea. Justifikazio hori ingurumen-organoak baliozkotu beharreko onarpen-agiriarekin batera aurkeztu beharko da, agiriaren eranskin gisa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuak Prebenitu eta Kudeatzeko Ingurumen Organoaren Jarraibideen arabera, eta hondakinen kudeaketaren Batasuneko hierarkia betetzea indartze aldera, altzairugintzako hautsen (EHZ 10 02 07) korrontea EAEko prozesu metalurgikoe-tan balorizatzea sustatuko da. Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK Bilboko instalazioan kudeatuko du hondakin hori, balorizazio-instalazioak larrialdien edo mantentze-lanen ondorioz gelditzen direnean. Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK aldeztetik ingurumen-organoari jakinarazi beharko dio egoera hori, hark onespina eman dezan.

Tratatzeko, altzairu herdoilgaitza ekoizteko prozesuetan sortutako altzairugintzako hautsaren hondakina soilik onartuko da.

Halaber, tratamendu-lerro honetan hondakinak onar daitezen, emaitza positiboak lortu beharko dira hondakin berri bakoitzerako egin behar den tratagarritasun-entseguan, eta beharrezkoa izango da laborategian tratatutako laginean 2002ko abenduaren 29ko 2003/33/EE Erabakiko eranskineko 2.3 zenbakian ezartzen diren parametro guztiak analizatzea. Erabaki horrek hondakinak zabortegetan onartzeko irizpide eta prozedurak ezartzen ditu 1999/31/EEE Zuzentarauaren 16. artikuluari eta II. eranskinari jarraituz.

Jasotako emaitzei esker jakin ahal izango da instalazioan hondakin hori tratatu daitekeen ala ez, hondakina manipulatzeko zer segurtasun-neurri hartu behar diren, eta hondakina onargarria ez bada, hondakinaren helburu alternatiborik egokiena zein izan daitekeen.

d) Bainu azidoak neutralizatzeko tratamendu-lerroa (D901 kudeaketa-eragiketa).

EHZ	Hondakinaren deskribapena
06 01 01	Azido sulfurikoa eta azido sulfurosoa
06 01 02	Azido klorhidrikoa
06 01 03	Azido fluorhidrikoa
06 01 04	Azido fosforikoa eta azido fosforoso
06 01 05	Azido nitrikoa eta azido nitrosoa
06 01 06	Bestelako azidoak
06 07 04	Disoluzioak eta azidoak; esaterako, kontaktu-azidoa
08 03 16	Disoluzio korrosiboen hondakinak
10 01 09	Azido sulfurikoa
11 01 05	Desugerketa-azidoak
11 01 06	Beste kategorietan aipatzen ez diren azidoak
16 06 06	Gaika bildutako pilen eta metagailuen elektrolitoak
16 07 09	Beste sustantzia arriskutsu batzuk dituzten hondakinak
19 02 04	Aurrez nahastutako hondakinak, gutxienez hondakin arriskutsu batez osatuak
19 02 11	Substantzia arriskutsuak dauzkaten bestelako hondakinak
20 01 14	Azidoak

e) Lohien tratamendua eta egokitzapena (D901 kudeaketa-eragiketa).

EHZ	Hondakinaren deskribapena
01 05 05	Hidrokarburoak dauzkaten lohiak eta zulaketen hondakinak
01 01 02	Mineral ez-metalikoen erauzketako hondakinak
01 03 06	01 03 04 eta 01 03 05 kodeetan aipatzen ez diren arroka antzuak
01 03 08	Hautsaren eta hondar xehearen hondakinak, 01 03 07 kodean aipatzen ez direnak
01 04 09	Harea eta buztinen hondakinak
01 04 10	01 04 07 kodean aipatzen ez diren hautsaren eta hondar xehearen hondakinak
01 04 12	Arroka antzuak eta mineralen beste garbiketa-hondakin batzuk, 01 04 07 eta 01 04 11 kodeetan aipatzen ez direnak
01 04 13	Harria moztean eta zerratzean sortutako hondakinak, 01 04 07 kodean aipatzen ez direnak
01 05 04	Ur geza daukaten zulaketa-hondakinak
01 05 07	Barita duten lohiak eta zulaketen bestelako hondakinak, 01 05 05 eta 01 05 06 kodeetan aipatzen ez direnak
01 05 08	Kloruroak daukaten lohiak eta zulaketen bestelako hondakinak
01 05 99	Beste kategorietan zehazten ez diren hondakinak
02 01 01	Garbiketako eta arazketako lohiak
02 01 06	Animalien gorozkiak, gernua eta simaurra, gaika bildutako eta sortzen diren tokitik kanpo tratatutako efluenteak
02 01 09	02 01 08 kodean aipatzen ez diren hondakin agrokimikoak
02 02 01	Garbiketako eta arazketako lohiak
02 02 04	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak
02 03 01	Arazketa, garbiketa, zuriketa, zentrifugatze eta bereizketako lohiak
02 03 04	Kontsumitzeko edo lantzeko desegokiak diren materialak
02 03 05	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak
02 04 03	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak
02 05 01	Eraldatzeko edo kontsumitzeko egokiak ez diren materialak
02 05 02	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak
02 06 01	Kontsumitzeko edo lantzeko egokiak ez diren materialak
02 06 03	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak
02 07 04	Kontsumitzeko edo lantzeko egokiak ez diren materialak
02 07 05	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak
03 03 02	Lixiba berdeen lohiak (egoste-lixibak berreskuratzean sortuak)
03 03 05	Papera birziklatzean, hari tinta-kentzeko prozesuan sortutako lohiak
03 03 07	Paper- eta kartoi-hondakinekin egindako orearen kondarrak, mekanikoki bereiziak
03 03 09	Kare-lohien hondakinak
03 03 10	Zamatze- eta iztukatze-materialetako zuntzen kondarrak eta lohiak, bereizketa mekanikoan sortuak
03 03 11	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak, 03 03 10 kodean zehazten ez direnak
03 03 99	Beste kategorietan zehazten ez diren hondakinak
04 01 06	Kromodun lohiak, bereziki efluenteak in situ tratatzean sortutakoak
04 01 07	Kromorik gabeko lohiak, bereziki efluenteak in situ tratatzean sortutakoak
04 02 10	Produktu naturaletako materia organikoa (adibidez, koipea edo argizaria)
04 02 17	04 02 16 kodean aipatzen ez diren koloragarriak eta pigmentuak
04 02 20	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak, 04 02 19 kodean zehazten ez direnak
05 01 10	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak, 05 01 09 kodean zehazten ez direnak
05 01 13	Galdararen elikadura-uretik sortutako lohiak
05 01 14	Hozte-zutabeetako hondakinak

2023ko urtarrilaren 20a, ostirala

EHZ	Hondakinaren deskribapena
05 06 04	Hozte-zutabeetako hondakinak
05 07 02	Sufrea daukaten hondakinak
05 07 99	Beste kategorietan zehazten ez diren hondakinak
06 03 16	06 03 15 kodean aipatzen ez diren metal oxidoak
06 05 03	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak, 06 05 02 kodean zehazten ez direnak
06 13 03	Karbono-beltza
07 01 12	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak, 07 01 11 kodean zehazten ez direnak
07 02 12	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak, 07 02 11 kodean zehazten ez direnak
07 03 12	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak, 07 03 11 kodean zehazten ez direnak
07 04 12	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak, 07 04 11 kodean zehazten ez direnak
07 05 12	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak, 07 05 11 kodean zehazten ez direnak
07 06 12	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak, 07 06 11 kodean zehazten ez direnak
07 07 12	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak, 07 07 11 kodean zehazten ez direnak
08 01 12	08 01 11 kodean zehazten ez diren pintura- eta berniz-hondakinak
08 01 14	08 01 13 kodean zehazten ez diren pintura- eta berniz-lohiak
08 01 16	Pintura edo berniza daukaten lohi urtsuak, 08 01 15 kodean zehazten ez direnak
08 01 18	Pintura eta berniza desugertzearen edo kentzearen hondakinak, 08 01 17 kodean zehazten ez direnak
08 01 20	Pintura edo berniza daukaten esekidura urtsuak, 08 01 19 kodean zehazten ez direnak
08 02 01	Estaldurako hondar xeheen hondakinak
08 02 02	Material zeramikoak dauzkaten lohi urtsuak
08 03 07	Tinta daukaten lohi urtsuak
08 03 08	Tinta daukaten hondakin likido urtsuak
08 03 13	08 03 12 kodean zehazten ez diren tinta-hondakinak
08 03 15	08 03 14 kodean zehazten ez diren tinta-lohiak
08 03 18	Inprimatze-tonerraren hondakinak, 08 03 17 kodean zehazten ez direnak
08 04 10	08 04 09 kodean zehazten ez diren itsasgarrien eta zigitatzaileen hondakinak
08 04 12	08 04 11 kodean zehazten ez diren itsasgarrien eta zigitatzaileen lohiak
08 04 14	Itsasgarriak eta zigitatzaileak dauzkaten lohi urtsuak, 08 04 13 kodean zehazten ez direnak
08 04 16	Itsasgarriak edo zigitatzaileak dauzkaten hondakin likido urtsuak, 08 04 15 kodean zehazten ez direnak
09 01 07	Zilarra edo zilarraren konposatuak dauzkaten argazki-filmak eta -papera
10 01 01	Labeko errautsak, zepak eta galdarako hautsa (10 01 04 kodean zehaztutako galdarako hautsa izan ezik)
10 01 02	Ikatzezko errauts hegalaria
10 01 03	Zohikatze- eta egur-errauts hegalaria
10 01 05	Erreakzioko kaltzio-hondakinak, forma solidoan, errekuntza-gasen desulfuraziotik sortutakoak
10 01 07	Erreakzioko kaltzio-hondakinak, lohi forman, errekuntza-gasen desulfuraziotik sortutakoak
10 01 15	Labeko errautsak, zepak eta galdarako hautsa, koerkausketan sortuak, 10 01 14 kodean zehazten ez direnak
10 01 17	Koerkausketatik sortutako errauts hegalaria, 10 01 16 kodean zehazten ez direnak
10 01 19	Gas-arazketan sortutako hondakinak, 10 01 05, 10 01 07 eta 10 01 18 kodeetan zehazten ez direnak
10 01 21	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak, 10 01 20 kodean zehazten ez direnak
10 01 23	Lohi urtsuak, galdaren garbiketarik sortuak, 10 01 22 kodean zehazten ez direnak
10 01 24	Ohantze fluidizatuetako hareak
10 01 25	Ikatza erabiltzen duten zentral elektrikoetako erregaiak biltegitratzean eta prestatzean sortutako hondakinak
10 01 26	Hozteko uraren tratamenduan sortutako hondakinak
10 01 99	Beste kategorietan zehazten ez diren hondakinak

2023ko urtarrilaren 20a, ostirala

EHZ	Hondakinaren deskribapena
10 02 08	Gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak, 10 02 07 kodean zehazten ez direnak
10 02 10	Ijezketatiko azala
10 02 12	Hozteko uraren tratamenduan sortutako hondakinak, 10 02 11 kodean zehazten ez direnak
10 02 14	Gasen tratamenduan sortutako lohiak eta iragazte-opilak, 10 02 13 kodean zehazten ez direnak
10 02 15	Beste lohi eta iragazte-opil batzuk
10 03 05	Alumina-hondakinak
10 03 20	Gas-efluenteetatik datozen partikulak, zehazten ez direnak
10 03 22	Bestelako partikulak eta hautsa (ehotze-hautsa barne), 10 03 21 kodean zehazten ez direnak
10 03 24	Gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak, 10 03 23 kodean zehazten ez direnak
10 03 26	Gasen tratamenduan sortutako lohiak eta iragazte-opilak, 10 03 25 kodean zehazten ez direnak
10 03 28	Hozteko uren tratamenduko hondakinak, 10 03 27 kodean zehazten ez direnak
10 05 04	Beste partikula batzuk eta hautsa
10 05 09	Hozteko uren tratamenduko hondakinak, 10 05 08 kodean zehazten ez direnak
10 06 04	Beste partikula batzuk eta hautsa
10 06 10	Hozteko uren tratamenduko hondakinak, 10 06 09 kodean zehazten ez direnak
10 07 03	Gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak
10 07 04	Bestelako partikulak eta hautsak
10 07 05	Gasen tratamenduan sortutako lohiak eta iragazte-opilak
10 07 08	Hozteko uren tratamenduko hondakinak, 10 07 07 kodean zehazten ez direnak
10 08 04	Partikulak eta hautsa
10 08 16	Gas-efluenteetatik datozen partikulak, 10 08 15 kodean zehazten ez direnak
10 08 18	Gasen tratamenduan sortutako lohiak eta iragazte-opilak, 10 08 17 kodean zehazten ez direnak
10 08 20	Hozteko uren tratamenduko hondakinak, 10 08 19 kodean zehazten ez direnak
10 09 06	Galdarik gabeko galdaketa-ar eta -moldeak, 10 09 05 kodean zehazten ez direnak
10 09 08	Galdaketa-ar eta -molde galdadunak, 10 09 07 kodean zehazten ez direnak
10 09 10	Gas-efluenteetatik datozen partikulak, 10 09 09 kodean zehazten ez direnak
10 09 12	10 09 11 kodean zehazten ez diren beste partikula batzuk
10 10 06	Galdarik gabeko galdaketa-ar eta -moldeak, 10 10 05 kodean zehazten ez direnak
10 10 08	Galdaketa-ar eta -molde galdadunak, 10 10 07 kodean zehazten ez direnak
10 10 10	Gas-efluenteetatik datozen partikulak, 10 10 09 kodean zehazten ez direnak
10 10 12	10 10 11 kodean zehazten ez diren beste partikula batzuk
10 11 05	Partikulak eta hautsa
10 11 06	Errekuntza-gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak, 10 11 15 kodean zehazten ez direnak
10 11 14	Beiraren leuntze eta esmerilatuan sortutako lohiak, 10 11 13 kodean zehazten ez direnak
10 11 16	Errekuntza-gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak, 10 11 15 kodean zehazten ez direnak
10 11 18	Uren tratamenduan sortutako lohiak eta iragazte-opilak, 10 11 17 kodean zehazten ez direnak
10 11 20	Efluenteak in situ tratatzean sortutako hondakin solidoak, 10 11 19 kodean zehazten ez direnak
10 12 03	Partikulak eta hautsa
10 12 05	Gasen tratamenduan sortutako lohiak eta iragazte-opilak
10 12 10	Gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak, 10 12 09 kodean zehazten ez direnak
10 12 13	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak
10 13 06	Partikulak eta hautsa (10 13 12 eta 10 13 13 kodeak izan ezik)
10 13 07	Gasen tratamenduan sortutako lohiak eta iragazte-opilak
10 13 13	Gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak, 10 13 12 kodean zehazten ez direnak
11 01 10	10 01 09 kodean zehazten ez diren lohiak eta iragazte-opilak

2023ko urtarrilaren 20a, ostirala

EHZ	Hondakinaren deskribapena
11 01 12	11 01 11 kodean zehazten ez diren irakuzketa-likidoak
11 01 14	Koipegabetzearen hondakinak, 11 01 13 kodean zehazten ez direnak
12 01 01	Metalen karraka-hautsak eta txirbilak
12 01 02	Burdin metalen hautsa eta partikulak
12 01 03	Metal ez-burdinazkoen karraka-hautsak eta txirbilak
12 01 04	Metal ez-burdinazkoen hautsa eta partikulak
12 01 05	Plastiko-txirbilak eta -bizarrak
12 01 15	12 01 14 kodean zehazten ez diren mekanizazioko lohiak
12 01 17	Granailaketaren edo zorrotadaren hondakinak, 12 01 16 kodean zehazten ez direnak
12 01 21	Esmerilatze harri eta material erabiliak, 12 01 20 kodean zehazten ez direnak
15 01 01	Paperezko eta kartoizko ontziak
15 01 02	Plastikozko ontziak
15 01 03	Zurezko ontziak
15 01 04	Metalezko ontziak
15 01 05	Ontzi konposatuak
15 01 06	Ontzi nahasiak
15 01 07	Beirazko ontziak
15 01 09	Ehunezko ontziak
15 02 03	Xurgatzaileak, iragazteko materialak, garbitzeko trapuak eta babesteko arropak, 15 02 02 kodean zehazten ez direnak
16 03 04	16 03 03 kodean zehazten ez diren hondakin ez-organikoak
16 03 06	16 03 05 kodean zehazten ez diren hondakin organikoak
16 05 05	Presio-ontzietako gasak, 16 05 04 kodean zehazten ez direnak
16 05 09	16 05 06, 16 05 07 eta 16 05 08 kodeetan zehazten ez diren produktu kimiko baztertuak
16 06 04	Pila alkalinoak, 16 06 03 kodekoak izan ezik
16 06 05	Beste pila alkalino batzuk
16 10 02	16 10 01 kodean zehazten ez diren hondakin likido urtsuak
16 10 04	16 10 03 kodean zehazten ez diren kontzentratu urtsuak
17 01 07	Hormigoi, adreilu, teila eta material zeramikoen nahasteak, 17 01 06 kodean zehazten ez direnak
17 05 04	17 05 03 kodean zehazten ez diren lur eta harriak
17 05 06	17 05 05 kodean zehazten ez diren drainatze-lohiak
17 06 04	17 06 01 eta 17 06 03 kodeetan zehazten ez diren isolatzeko materialak
17 09 04	Nahastutako eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak, 170901, 170902 eta 170903 kodeetan zehazten ez direnak
19 01 12	Labe-hondoko errautsak eta zepak, 19 01 119 01 14 kodean zehazten ez direnak
19 01 14	19 01 13 kodean zehazten ez diren errauts hegalaria
19 01 16	19 01 15 kodean zehazten ez diren galdara-hautsak
19 01 19	Ohantze fluidizatuak
19 02 06	Tratamendu fisiko-kimikoetan sortutako lohiak, 19 01 13 kodean zehazten ez direnak
19 06 04	Hiri-hondakinaren tratamendu anaerobikoan sortutako digestio-lohiak
19 03 05	19 03 04 kodean zehazten ez diren hondakin egonkortuak
19 03 07	19 03 06 kodean zehazten ez diren hondakin solidifikatuak
19 07 03	19 07 02 kodean zehazten ez diren hondakindegiko libiatuak
19 08 02	Harea kentzean sortutako hondakinak
19 08 05	Hiriko hondakin-uren tratamenduan sortutako lohiak

EHZ	Hondakinaren deskribapena
19 08 09	Ura/substantzia oliotsuak banatzetik sortutako koipe eta olioaren nahasteak, jan daitezkeen olio eta koipeak soilik dauzkatenak
19 08 12	Industriako ur zikinen tratamendu biologikoan sortutako lohiak, 19 08 11 kodean zehazten ez direnak
19 08 14	Hondakin-uren tratamenduan sortutako lohiak
19 09 02	Ura gardentzean sortutako lohiak
19 09 05	Erretxina ioi-trukatzaile aseak edo erabiliak
19 09 06	Ioi-trukatzaileak leheneratzean sortutako soluzioak eta lohiak
19 10 06	19 10 05 kodean zehazten ez diren beste frakzio batzuk
19 11 06	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak, 19 11 05 kodean zehazten ez direnak
19 13 02	Lurzoruak leheneratzean sortutako hondakin solidoak, 19 13 01 kodean zehazten ez direnak
19 13 04	Lurzoruak leheneratzean sortutako lohiak, 19 13 03 kodean zehazten ez direnak
19 13 06	Lurpeko urak leheneratzean sortutako lohiak, 19 13 05 kodean zehazten ez direnak
19 13 08	Lurpeko urak leheneratzean sortutako likido urtsuen eta kontzentratu urtsuen hondakinak, 19 13 07 kodean zehazten ez direnak
20 01 01	Papera eta kartoia
20 01 25	Koipe eta olio jangarriak
20 01 38	Egurra, 20 01 37 kodean zehazten dena ez bezalakoa
20 01 39	Plastikoak
20 01 40	Metalak
20 01 99	Beste kategorietan zehazten ez diren bestelako frakzioak
20 03 01	Udal-hondakinen nahastea
20 03 03	Bide-garbiketean sortutako hondakinak
20 03 04	Putzu septikoetako lohiak
20 03 06	Estolden garbiketean sortutako hondakinak

Instalazioan inola ere ezingo dira onartu ebazpen honetan zehaztu ez diren hondakinak, edota hondakin onargarri gisa sailkatuta egon arren, beste hondakin mota generikoren batekin kutsatuta daudenak.

Jasotako hondakinek ezingo dute izan 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina ordeztzen duen Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014 Erregelamenduan ezarritako arrisku-ezaugarrietako bat ere.

E.1.2.– Hondakinen sarrera kontrolatzea.

Instalaziora tratatuak izateko iristen diren hondakinen kontrola egin beharko da, hondakin horiek ebazpen honetako baldintzen arabera onargarriak direla bermatzeko. Kontrol horretan, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak onartutako tratamendu-kontratuan ezarritako egiaztapena egin beharko da. Agiri horretan, onarpen-parametro mugatzaile eta baldintzatzaileak ezarriko dira. Egiaztatze hori sarrera-kontrolerako agiri batean erregistratuta geratuko da.

Hondakin-partida bat baztertu egiten bada, ez dituelako betetzen onartzeko parametro mugatzaileak, berehala jakinarazi beharko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari. Horrekin batera, hondakinaren izaera –EHZ kodea– jatorria, kantitatea, enpresa garraiatzailea, bazterketaren arrazoia, baztertutako hondakinaren helmuga eta bestelako gorabeheri buruzko datuak eman beharko dira.

a) letran adierazitako kontrolez gain, ekoizleko 20 tona gainditzen dituen hondakin arriskutsu mota bakoitzaren karakterizazioa egingo da urtero (jatorri desberdin bakoitzeko karakterizazio bat), instalazioan kudeatzen diren hondakinen artean. Karakterizazio hori kanpoko laborategi batek egin beharko du. Informazioa Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da, urtero.

Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK egiaztatu beharko du hondakin arriskutsu horiek Bilbon dituen instalazioetara eramateko erabiliko den garraioak betetzen dituela horrelako salgaien garraiorako indarrean dagoen legeriak exijitzen dituen baldintzak, eta horren inguruan gorabeheraren bat antzematen denean, berehala jakinarazi beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, hark egokitzat jotzen diren neurri guztiak har ditzan.

Beste autonomia-erkidego batzuetatik datozen hondakinak lekualdatzeko, Estatuaren lurraldearen barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua ez ezik, Euskal Autonomia Erkidegoan gerora egiten den arau horren garapena ere bete beharko da.

Hori hala izanik, hondakinak beste autonomia-erkidego batetik lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak 31.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

E.1.3.– Zamalanak.

Hondakin horien zamalanak egiteko ibilgailuen aparkalekuek zola iragazgaitza izango dute, eta, orobat, behar diren maldak eta balizko isurketak biltzeko sareak izango dituzte, isurketa horiek kutxatila itsurantz edo biltzeko putzurantz zuzentzeko, betiere bidean ibilgailuaren azpitik igaro gabe edo beste ibilgailu edo instalazio batzuetara hurbildu gabe.

Gai arriskutsuak manipulatzeko eskatutako segurtasun-baldintzak betez egingo dira zamalanak.

Instalazioan, hondakinekin zamalanak egitean edo hondakinak manipulatzean, kontu handia izan beharko da kontrolik gabeko emisiorik edo emisio lausorik ez sortzeko, edo, bestela, emisio horiek ahalik eta txikienak izateko. Alde horretatik, ekipoen estankotasuna ziurtatzea ere garrantzitsua izango da.

E.1.4.– Jasotako hondakinak biltegitratzea.

a) Tratatu beharreko hondakinak biltegitratzeko instalazioek lurzoru iragazgaitzak izango dituzte, aurreikusitako zamak jasateko eta egon litezkeen ihes edo isurketei eusteko gai direnak, eta biltegitratze-eremu bereziak izan beharko dituzte hondakin onargarri mota generiko bakoitzerako.

b) Balorizatu beharreko hondakin arriskugabeak gehienez bi urtez eduki behar dira biltegitratuta.

c) Hondakin arriskutsuak biltegitratzeko gehieneko denbora sei hilekoa izango da.

d) Instalazioan onartutako hondakinak biltegitratzean, prezipitazio atmosferikoak sartzea eta haizeak hondakinak arrastatzea saihestu beharko da.

e) Hautsezko hondakinak eta soltean hartutakoak siloetan eta nabearen barruan biltegitratuko dira, tratatu arte.

f) Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, haiek biltzeko ontzi edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezkeen. Bilketa-sistemek independenteak izan behar dute hondakin mota hauetarako: isurketaren bat gertatu eta nahasiz gero, nahaste horren arriskugarritasuna handitzen bada edo hura kudeatzea zailtzen bada.

g) Ontziek etiketatuta egon beharko dute. Etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du eta etiketan gutxienez ontziek dauzkaten hondakinen identifikazio-kodea, ontziratze-eguna eta hondakin horiek dakartzaten arrisku motak adierazi beharko dira.

h) Hondakinak desagertu edo galtzen badira, edo ihesen bat gertatzen bada, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzan eta Bilboko Udalean.

E.1.5.– Kudeatutako hondakinen datuak erregistratzea.

Hondakinen eta lurzoru kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legeak, Ekonomia zirkularra bultzatze-koak, 64. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK artxibo kronologiko bat izan beharko du, formatu fisiko edo telematikoan. Artxiboan, datu hauek jasoko dira, ordena kronologikoan: hondakinen kantitatea, izaera, jatorria, helmuga eta tratamendu-metodoa. Hala dagokionean, onartutako eta kudeatutako hondakinen garraibidea eta bilketa-maiztasuna ere jasoko dira. Baztertutako hondakinei dagokienez, berriz, kantitatea, baztertutako hondakina sortzen duen enpresa, baztertzeko arrazoia, baztertutako hondakinaren azken helmuga eta beste gorabehera batzuk jasoko dira. Aipatutako artxibo kronologikoan, hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-lanen agiri bidezko egiaztapenean bildutako informazioa sartu behar da.

Artxibo kronologiko hori gutxienez bost urtez gorde beharko da, eta urtero bidali beharko da Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza honetara, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

Hondakinen eta lurzoru kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legearen, Ekonomia Zirkularra Bultzatze-koaren, 65. artikuluekin bat etorritik, urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da artxibo kronologikoan jasotako informazioaren memoria laburra, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

Ebazpen honetako E.1.2 apartatuan aipatutako kontrolen emaitzak apartatu honetan araututako erregistroan jasoko dira, baita Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK egin ditzakeen kontrasteko kontrolak ere.

Aurreko apartatuetan adierazitako agiriak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

E.1.6.– Estatz kanpotik inportatutako hondakinak.

Baldin eta kudeatu beharreko hondakinak beste estatu batzuetakoak badira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan, hondakinen lekualdaketei buruzkoan, ezarritakoa bete beharko da.

Horrez gain, aurreikusten bada zaborte-gian ezabatu beharko direla inportatu beharreko hondakinak zein inportatutako hondakinen helmugako instalazioan aurreikusitako balorizazio- eta ezabatze-tratamendutik lortutako korrante esanguratsuren bat, orduan, kontsulta bat egin beharko zaio organo honi, justifikatuz aurreikusitako mugaz gaindiko lekualdaketak bat datozela Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030 Planean zehaztutako hondakinen inguruko plan-gintzaren helburuekin.

E.2.– Funtzionamendu-baldintza orokorrak.

E.2.1.– Instalazioan tratatutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

E.1 apartatuan adierazten diren hondakinak onartu, jaso, ikuskatu eta biltegitratzeko baldintza eta kontrolei kalterik egin gabe, Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK tratamendu-lerro hauetarako baldintza hauek betetzen dituela bermatu beharko du:

a) Hondakin likido eta/edo oretsu oliotsuen tratamendu-lerroa.

Tratatu beharreko hondakin oliotsuak biltegitratzeko ahalmena ez da 200 t baino gehiagokoa izango. 30 m³ deskarga-andelari dagozkio, 100 m³ hondakin gordinaren biltegiei, 25 m³ aurre-nahasketako biltegiari eta 60 m³ prozesuko erreaktoreei.

Leheneratzera bideratuko diren olio berreskuratuei, instalaziotik kanpo bidali aurretik, karakterizazio-analisi bat egin beharko zaie astero; horretarako, lagin adierazgarri bat hartuko da aurretratamendu-prozesuan lortutako olio biltegitzako andeletik. Azterketa hori Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari bidali beharko zaio. Azterketan, gutxienez parametro hauek zehaztuko dira: Dentsitatea, biskositatea, sugar-puntua, ur-edukia eta sedimentuak, kloroa guztira eta PCB.

Parametro hauetarako ezarritako mugak bete beharko dituzte:

Kloroa guztira	≤ 2500 ppm
PCB/PCT	≤ 50 ppm
Ur-edukia	≤% 15

Balorizazio energetikora bideratuko diren olio berreskuratuei, bidalketa bakoitzean eta instalaziotik kanpo bidali aurretik, karakterizazio-azterketa bat egin beharko zaie; horretarako, lagin adierazgarri bat hartuko da aurretratamendu-prozesuan lortutako olio biltegitzako andeletik. Azterketa hori Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari bidali beharko zaio. Azterketan, gutxienez parametro hauek zehaztuko dira: Dentsitatea, biskositatea, sugar-puntua, ur- eta sedimentu-edukia, kloroa guztira, PCB, sufrea, kadmioa, kromoa, kobrea, beruna, nikela eta banadioa. Lortutako emaitzen arabera, beste maiztasun bat ezarri ahal izango da karakterizazio-analisi horretarako.

Balorizazio energetikora bideratutako olio berreskuratuek ondorengo parametroetarako adierazitako mugak bete beharko dituzte:

Ezaugarriak	Neurketa-unitateak	Mugak
Kloroa guztira	ppm	≤ 2500
PCB/PCT	ppm	≤ 25
Sufrea	ppm	≤ 10.000
Kadmioa	ppm	≤ 25 ppm
Kromoa	ppm	≤ 25 ppm
Kobrea	ppm	≤ 120ppm
Beruna	ppm	≤ 700 ppm
Nikela	ppm	≤ 25 ppm
Biskositate zinematikoa 50 °C-ra, max.	Mm ² /S	380
Sugar-puntua, min.	° C	65
Ura eta sedimentua, max.	%V/V	1,0
Ura, max.	%V/V	0,5
Goiko bero-potentzia, min.	Kcal/kg	10.000
Beheko bero-potentzia, min.	Kcal/kg	9.500
Errautsak, max.	% m/m	0,15
Egonkortasuna Sedimentu potentzialak (max.)	% m/m	0,15
Banadioa, max.	mg/Kg	300

Parametroetako edozein gainditzen bada, aztertu beharreko karga berriz prozesatu beharko da.

Azterketa horien emaitzak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidali beharko dira; horrez gain, olio horiek balorizatzeko helmugan zerrenda bidaliko da.

Hondakin oliotsuen dekantazio-zentrifugaziotik eratorritako lohiak solidotze-egonkortzeko prozesura bideratu ahal izango dira beren KOG edukia % 8 baino txikiagoa bada; bestela, hondakin arriskutsu gisa kudeatuko dira.

Industriako olio erabilien kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuaren 7. artikulua xedatutakoari jarraikiz, leheneratze-tratamenduak lehentasuna izango du olio erabilien kudeaketan. Izan ere, kudeaketa lehentasun-ordena hau jarraituz gauzatuko da: leheneratzea, birziklatzeko beste modu batzuk, eta balorizazioa.

Urtero egiaztatu beharko da, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzaren aurrean, indarrean dirautela Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAren eta hark igorritako hondakinen hartzaileen arteko onarpen-kontratuek edo -gutunek. Hondakinak hartzen dituzten kudeatzaile horiek Espainiar Estatutik kanpo badaude, beharrezkoa izango da mugen arteko garraioak arautzen dituen Batasuneko arautegia betetzea.

b) Solidotze-egonkortzeko tratamendu-lerroa.

Solidotze-egonkortzeko tratamenduaren egokitasuna bermatzeko, prozesua optimizatzen duten eragiketa-baldintzak zehaztuko dira tratatu beharreko hondakinen sorta homogeen bakoitzarako, eta horretarako, alde aurretik, tratagarritasun-entsegua egin beharko da honako hauek zehazteko: hondakin/aglomeratzaile erlazioa, erreaktiboaren izaera eta dosifikazio maila eta nahasketaren parametro nagusiak.

Hondakinak talde homogeen tratatuko dira, horien arteko bateraezintasunak ekidin eta hondakin organikoak eta ez-organikoak bereiziko dira.

Nahasgailuaren irteeran, hondakinak behar adina denbora egon beharko du biltegitatuta baimendutako zabortegira eramateko eta bertan modu kontrolatuan uzteko modukoa dela ziurtatzeko eta tratamenduaren eraginkortasuna bermatzen duten kontrolak gauzatzea ahalbidetzeko.

Biltegitratze hori silo itxi batean egingo da. Hondakina tratatu eta gutxienez 48 ordu igaro ondoren, biltegitratutako sorta bakoitzaren hiru lagin adierazgarri hartuko dira. Horietariko bati ondoren zerrendatzen diren analisiak egingo zaizkio instalazioko laborategietan, beste bat hozkailuan biltegitratuko da Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzaren esku egon dadin, eta hirugarrena ebazle gisa geratuko da.

Tratatutako hondakinean xeheki, eta gutxienez, analizatuko dira zabortegietan hondakinak hartzeko irizpide eta prozedurak ezartzen dituen Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiko eranskineko 2.3 apartatua adierazten diren parametro guztiak.

Parametro analitikoren batek zabortegiko onartze-balioren bat gainditzen badu, baina parametro horren balioa ez bada onartze-balioa baino hiru aldiz handiagoa, Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK onartze-balio hori gainditzea eragin duten kausak aztertu eta justifikatu beharko ditu eta hori konpontzeko hartu beharreko neurriak ezarri beharko ditu. Analisi horren emaitzak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari jakinarazi beharko dizkio, hark erabaki arrazoitua har dezan.

Solidotze-egonkortzeko prozesutik eratorritako hondakinek, parametroren bati dagokionez, hiru aldiz gainditzen badute zabortegian onartuak izateko balio-muga, instalazioan biltegitratuta egon beharko dute berriro prozesura bidaltzen diren arte; hala, hondakin horiek berriro tratatuko dira. Bestela, ezaugarri horretako hondakin arriskutsuak tratatzeko baimena duen kudeatzaileari bidali beharko zaizkio.

c) Bainu azidoak neutralizatzeko tratamendu-lerroa:

Lerro honetan lortutako kloruro ferrikoa –desugerketa-bainuetatik sortutako kloruro ferrosozko disoluzio azidoei burdina eta kloroa eranstean datzan tratamenduan– barne-kontsumorako erabili ahal izango da baimendutako prozesuetan, beharren arabera. Hori merkaturatzeko, produktuaren homogeneotasuna eta kalitatea bermatzen duten lehengaiaren fitxa teknikoa eta segurtasunari buruzko fitxa bidali beharko dira Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara. Halaber, dagokion industria-erregistroko alta eman beharko da.

d) Kromo VI bainuak erreduzitzeko lerroa.

Atmosferara igortzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

e) Aldi baterako biltegiatzea.

Aldi baterako biltegiatze-jardueraren barruan honako hauek sartuko dira: produktua multzoatzea, edukiontziz aldatu gabe, instalazioan horretarako gaitutako eta 125 t inguruko edukiera duen tokian, bai eta hura kargatzea, deskargatzea eta berriro ontziratzea ere. Biltegiatze-jardueran ez da sartzan ontzien barrualdeari edo haietan bildutako hondakinei eragiten dien bestelako manipulaziorik.

Solteko hondakinei dagokienez, izaerari, konposizioari eta kodifikazioari dagokienez homogeneoak diren hondakinak bakarrik biltegiatu ahal izango dira batera, eta alde zuzenetik karakterizatu egin beharko dira, baterako biltegiatzeak arriskugarritasuna areagotzen ez duela eta azken kudeaketa zailtzen ez duela ziurtatzeko.

Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, biltegiatutako hondakinek likido sukoiak eta erregaiak eta likido korrosiboak biltegiatzearen inguruan indarrean dagoen arautegian ezartzen diren exijentziak bete beharko dituzte, baita suteen prebentzio- eta babes-arauak ere, eta behar bezala identifikatu beharko dira ezagutu eta bereizi ahal izateko.

E.2.2.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortutako hondakin guztiak kudeatzeko behar bezala bete beharko dira Hondakinen eta lurzoru kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legea, Ekonomia zirkularra bultzatzekoa, eta aplikatzekoak diren araudi espezifikoak, eta, beharrezkoa bada, karakterizatu egin beharko dira euren izaera eta helmuga egokiena zehazteko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia ezberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; beraz, hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta horiek bildu eta biltegiatzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak ekiditeko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balorizatu egin behar da, eta, horretarako, balorizatzaile baimendu bati entregatu beharko zaizkio. Hondakinak ezabatzeke, ezinbestekoa izango da alde zuzenetik behar bezala justifikatzea teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren aldetik ez dela bideragarria haiek balorizatzea. Leheneratzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira balorizazio material edo energetikoko beste modu batzuen aurretik.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimendurik badago hondakin zehatz batzuk tratatzeko, hondakin horiek instalazio haietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Hondakinen azken helmuga zabortegei baimenduan ezabatzea dela aurreikusten bada, hondakinak karakterizatzeko, Hondakinak hondakindegietan hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituen Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak xedatutakoari jarraituko zaio, bai eta Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak ezarritako jarraibideei ere.

Instalazioan sortutako hondakinen kantitateak, ebazpen honetan jasotakoa, orientagarria da soilik, kontuan hartuta jardueraren ekoizpen-gorabeherak eta ekoizpenaren eta sortutako hondakinen arteko erlazioa. Datu horiek jardueraren adierazleetan ageri dira. Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan (4.d apartatua) ezarritakoari kalterik egin gabe, instalazioko aldaketak kalifikatzeko, kasu honetan soilik eskatu beharko da baimena egokitzea: baldin eta sortutako hondakinen kantitatea handitzeak aurretik ezarri diren biltegitratze- eta ontziratze-baldintzak aldatu beharra badakar.

Hondakinak biltegitratzeko eremuak edo eremuek lurzoru iragazgaitza izango dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan edo oso bustita egoteagatik, hondakinok isurketak edo lixibatuak sor badiotzakete, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak izan beharko dira, gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hauts itxurako hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak herrestan eramatea eragotziko da, eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Hondakinak lehen aldiz atera aurretik, kudeatzaile baimenduari ematen zaizkion hondakinak behar bezala identifikatu eta sailkatzen direla justifikatu beharko da, bereziki hondakin arrisku-tsuen izaerari eta arrisku-ezaugarriei dagokienez, betiere honako hauetan ezarritako irizpideekin bat etorritik: Europako Hondakin Zerrenda, Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiz argitaratua, zeinaren bidez aldatzen baita hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia; eta Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014/EB Erregelamendua, zeinaren bidez ordeztzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina (hondakinei buruzko zuzentarau horrek zuzentarau jakin batzuk baliogabetu zituen). Hori egiaztatu ondoren, eguneratu egingo dira baimen honetan jasota eta hura izapidetzean indarrean zeuden identifikazioa eta sailkapena.

Hondakinak desagertu edo galtzen badira, edo ihesen bat gertatzen bada, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzan eta Bilboko Udalean.

Sortutako hondakinak beste autonomia-erkidego batzuetara lekualdatzeko, Estatuaren lurraldearen barruan hondakinak lekualdatzea arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoan gerora egiten den arau horren garapena bete beharko dira.

Hori hala izanik, hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, bat etorritik Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak 31.2 artikuluan xedatutakoarekin.

Nahitaezko aurretiko jakinarazpen-kasuetan, Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31. artikuluan aurreikusitako eta ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuaren 9. artikuluan garatutako kausetako bat gertatzen denean, hala organo honek nola helmugako autonomia-erkidegoko organo eskudunak hondakinak garraiatzearen aurka egin ahalko dute; erabaki arrazoitua lekualdaketa jakinarazpena aurkeztu eta gehienez ere hamar eguneko epean jakinarazi beharko diote operadoreari.

Hondakinak Estatutik kanpora esportatzen badira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan hondakinak lekualdatzeari buruz ezarrita dagoena bete beharko da.

E.2.2.1.– Hondakin arriskutsuak.

Hauek dira sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak:

EHZ	Hondakinaren deskribapena	Ezaugarriak Arriskugarritasuna	Kudeatzeko bidea	Biltegitratze mota	Sortze- prozesua	Ekoizpen zenbatetsia (kg/urte)
15 02 02	Trapuak eta xurgatzaileak	HP5		Bidoia	Zerbitzu orokorrak	400
15 01 10	Metalezko ontziak	HP5		Transferentzia-zentroa	Zerbitzu orokorrak	750
15 01 10	Plastikozko ontziak	HP5		Transferentzia-zentroa	Zerbitzu orokorrak	650
20 01 33	Pilak eta metagailuak	HP6		Edukiontzia	Zerbitzu orokorrak	5
20 01 21	Hodi fluoreszenteak	HP6		Hondakin arriskutsuen biltegia	Zerbitzu orokorrak	4
16 02 13	Ekipamendu elektrikoak eta elektronikoak	HP6		Bulegoetan, jaso arte	Zerbitzu orokorrak	30
14 06 03	Disolbatzaile ez-halogenatuak	HP3		Bidoia	Zerbitzu orokorrak	200
13 05 07	Lohi hidrokarburatuak	HP5		Solteko gaien edukiontzi handiak	Zerbitzu orokorrak	55t
13 01 10	Olio erabiliak	H5			Olioan autokudeaketa	800

a) Hondakin bakoitzaren egoera eta ezaugarriak kontuan hartuta ezartzen da hondakin arrisku bakoitzari dagokion izendapena eta kodetzea, eta baimena izapidetzean jasotzen da horiei buruzko informazioa. Kode batzuek aldaketaren bat izan badezakete ere, beste batzuk, oinarrizkoak direlako, aldatu gabe utzi behar dira ekoizpen-jardueran. Horiek definitzen dituzte hondakin mota eta hondakinaren osagai arriskutsuak. Kudeaketa-bideetan hierarkizazioa egokia dela egiaztatzeko eta Hondakinak Kudeatzeko Europako Estrategian bai Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Euskadiko 2030 Planean ezarritakoa betetzen dela bermatzeko, organo honek onartu egin beharko du hondakin bakoitzaren tratamendu-kontratuetan jasotako informazioa, dagokion kudeatzaile baimenduak horretarako eskaria egin ostean. Egiaztatzeak garrantzi berezia izango du, batez ere, leheneratzea edo balorizazioa kudeatzeko eragiketa-kodearen arabera kudeatu diren hondakinen tratamendu-kontratuetan lagatze- edo ezabatze-kodeak balioztatzea eskatzen bada.

b) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereziak izango dira, duten tipologia dela eta, isurketarik gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

c) Hondakin arriskutsuak ontziratzeke, indarrean dagoen araudian ezarritako segurtasun-arauak bete beharko dira. Hondakin arriskutsuak dauzkaten ontziek etiketa argia, irakurgarria eta ezabagaitza eduki beharko dute eta itxita egon beharko dute kudeatzaileari eman arte, edukiak jariatuta edo lurrunduta gal ez daitezen.

d) Berariazko hondakin sanitarioak (II. taldea) manipulatu, ontziratuta, etiketatu eta biltegitratzeko baldintzak Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Sanitarioen Kudeaketari buruzko martxoaren 3ko 21/2015 Dekretuan eta hura garatzeko ondorengo araudietan ezarritakoak izango dira.

e) Hondakin arriskutsuek ezin izango dute 6 hilabete baino gehiago biltegitratuta egon. Salbuespen-egoeretan, ingurumen-organok aldatu ahalko du epe hori, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio, baldin eta gizakion osasuna eta ingurumena babestuko dela bermatzen bada.

f) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenbizikoz erretiratu aurretik, eta, hala badagokio, hondakinen kudeatzaile berri batengana bidali aurretik. Beharrezkoa bada, karakterizazio zehatza egingo da, proposatutako tratamendua egokia dela egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa modua ebatzen honen hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

g) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, horretarako egin beharreko jakinarazpena aurretiaz eginda dagoela, araudian zehaztutako moduan, identifikaziorako agiria bete beharko da; agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko da jatorritik helmugaraino. Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK artxiboan erregistratu eta gutxienez hiru urtez gorde beharko ditu tratamendu-kontratuak eta identifikazio-agiriak edo agiri ofizial baliokideak.

h) Egiaztatu egin beharko da kudeatze baimenduaren instalazioetara hondakin arriskutsuak eramateko garraioak honako betekizunak betetzen dituela: halako salgaiak garraiatzeari buruzko indarreko legerian eskatutakoak.

i) Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraikiz kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

j) Ekipamendu elektriko eta elektronikoen hondakinak –besteak beste, lanpara fluoreszenteenak– kudeatuko dira Gailu Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzko Errege Dekretuan (110/2015, otsailaren 20koan) xedatuaren arabera. Halaber, pilen eta metagailuen hondakinek bete beharko dute Pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuan xedatutakoa. Kudeatzaile baimenduaren tratamendu-kontratua izateko, garraioaren aurretiko jakinarazpena egiteko eta identifikazio-agiria betetzeko betebeharretik salbu egongo dira kudeaketa-sistema integratuko kudeaketa-azpiegituretara eramaten diren hondakinak, bai eta toki-erakundeei ematen zaizkienak ere, gaika bildutako udal-hondakinekin eta haien parekoak direnekin batera kudeatu ditzaten, baldin eta dagokion toki-erakundeak entrega horiek egin direla egiaztatzen badute. Toki-erakundeei egindako entregak justifikatzeko agiriak hiru urtez gorde beharko dira gutxienez.

k) Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK PCBak dituzten edo izan ditzaketen gailuak dituzenez, kudeaketa egokia izan dadin, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak eta errege dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

l) Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1005/2009 (EE) Erregelamenduan ozono-geruza agortzen duten substantziei buruz zehaztutako substantzia erabiliak baditu, berreskuratu egingo ditu, aldeek onetsitako bitarteko teknikoen bidez edo ingurumenaren ikuspegitik onargarri den beste edozein deuseztatze-bide tekniko erabiliz; bestela, birziklatzeko edo leheneratzeko erabiliko ditu aparatuak berrikusteko edo mantentzeko eragiketetan, edo desmuntatu edo deuseztatu aurretik.

m) Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK urtero adierazi beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua eta

helmuga; horrez gain, zerrenda batean jaso beharko ditu aldi baterako biltegiatuta dauden hondakinak, deklarazioaren xede den ekitaldi-amaieran. Datu horiekin batera, ingurumena zaintzeko programa, dagokion urtekoa, bidaliko du.

n) Hondakinen eta lurzoru kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legearen, Ekonomia zirkularra bultzatzekoaren, 65. artikuluan zehazten denari jarraikiz, Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK urtero helarazi beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari laburpen-memoria bat. Bertan jaso beharko du zein den sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kantitatea eta helmuga, eta zerrenda batean bildu beharko du zeintzuk dauden aldi baterako biltegiatuta deklarazioaren xede den ekitaldi-amaieran. Datu horiekin batera, ingurumena zaintzeko programa, dagokion urtekoa, bidaliko du.

o) Hondakinen eta lurzoru kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legeak, Ekonomia zirkularra bultzatzekoak, 64. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, artxibo kronologiko bat egingo da, eta bertan adieraziko dira kopurua, mota, identifikazio-kodea, jatorria, metodoak eta tratatzeko lekuak eta hondakin guztien sorrera- eta lagapen-datak. Artxibo hori gutxienez 3 urtez gorde beharko da, eta urtero bidali beharko da Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza honetara, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

p) Hondakin arriskutsuen kudeaketaren oinarriko printzipioetako bat betetzeko, alegia, mota horretako hondakin ahalik eta gutxien sortzeko, Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK hondakin arriskutsu gutxiago sortzeko plan bat egin eta aurkeztu beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, lau urtetik behin, Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 18.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, betiere aipatutako legea garatzen duen araudiak ez badu Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SA hondakin arriskutsuen ekoizle txiki gisa katalogatzen.

q) Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SA Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko Legearen (11/1997, apirilaren 24koaren) Lehen Xedapen Gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengatik eskuratutako merkataritarako edo industriarako ontzi baten azken jabea bada, Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SA ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen arduraduna da, eta, beraz, ontzi hori kudeatzaile baimendu bati eman beharko dio.

r) Paragrafo honetako g) eta i) (kudeatzaileak EAEn daudenean), n), o) eta p) letretan adierazitako agiriak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko dira transakzio elektronikoz bidez, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eskainitako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

s) Amiantoak duten hondakinak antzemanaz gero, Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzko 108/1991 Errege Dekretuan (3. artikulua) ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Horrez gain, amiantoak duten hondakinak kudeatzeko manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera egingo dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

E.2.2.2.– Hondakin arriskugabeak.

Sustatzaileak aitortu dituen hondakin arriskugabeak honako hauek dira:

2023ko urtarrilaren 20a, ostirala

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Dagokion prozesua	Kudeatzeko bidea	Ekoizpen zenbatetsia
Papera eta kartoia	20 01 01	Mantentze-lanak	Balorizazioa	3.000 kg
Iragazteko materialak	15 02 03	Fisiko-kimikoa	Ezabatzea	35kg
Berotik isolatutako material erabilia	10 11 03	Mantentze-lanak	Ezabatzea	40kg
Tonerrak	08 03 18	Mantentze-lanak	Balorizazioa	10kg
Mantentze-lanetako eta zerbitzuetako hondakinak	20 01 99	Mantentze-lanak	Ezabatzea	Puntuala

a) Iragazteko materialen kasuan, hondakin horiek gaur egun indarrean dagoen Europako hondakin zerrendan ispilu-sarrera dutenez, hondakin arriskugabe gisa hartuak izateko, horien ebakuazioa egin aurretik karakterizazio bat egin beharko da; karakterizazio horren emaitza Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidali beharko da proposatutako kudeaketa egokia den egiaztatzeko. Hondakina arriskutsua dela erabakiz gero, ebazpen honetako E.2.2.1. puntuan jasotako xedapenak aplikatuko dira.

b) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika eta behar bezala bereizi, eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, leheneratzaile, birziklatzaile edo balorizatzaile baimendu bati emango zaizkio.

c) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebetetik gora biltegitatuta eduki. Hondakinen azken helburua balorizatzea denean, 2 urtez gorde ahal izango dira.

d) Oro har, ebakuatu aurretik hondakin guztiek izan beharko dute kudeatzaile baimendu batek emandako tratamendu-kontratua, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa modua ebazpen honen hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK erregistratu eta artxiboan gorde beharko ditu onarpen-agiriak edo agiri ofizial baliokideak, nahitaezkoak badira, hiru urtez gutxienez.

e) Hondakina zabortegean biltegitatuz gero, jarraipen eta kontrolerako agiria bete beharko da hondakin arriskugabea lekualdatu aurretik, Hondakinak zabortegean biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzeko otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan xedatutakoari jarraikiz.

f) Balorizatze edo deuseztatze helburuarekin, hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, Hondakinen eta lurzoru kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legearen, Ekonomia Zirkularra Bultzatzekoaren, 31.2 artikulua araberak.

g) Baldin eta Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SA 11/1997 Legeak, apirilaren 24koak, Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzkoaren lehen xedapen gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengandik eskuratutako merkataritza- edo industria-ontzi baten azken jabea bada, Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK bere gain hartuko ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen ardura, eta, beraz, hondakin hori kudeatzaile baimendu bati entregatu beharko dio.

i) Hondakinen eta lurzoru kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legearen, Ekonomia Zirkularra Bultzatzekoaren, 65. artikuluan zehazten denari jarraikiz, Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK urtero adierazi beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskugabe guztien jatorria eta kantitatea, helmuga eta aldi

baterako biltegitratuta dauden hondakinen laburpen-memoria. Datu horiekin batera, ingurumena zaintzeko programa, dagokion urtekoa, bidaliko du.

i) Hondakinen eta lurzoru kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legearen, Ekonomia zirkularra bultzatzekoaren, 64. artikuluekin bat etorriz, fitxategi kronologiko bat egingo da, eta bertan adieraziko dira kopurua, mota, identifikazio-kodea, jatorria, metodoak eta tratatzeko lekuak eta hondakin guztien sorrera- eta lagapen-datak. Artxibo hori gutxienez 3 urtez gorde beharko da, eta urtero bidali beharko da Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza honetara, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

j) Paragrafo honetako d) eta e) letretan (kudeatzaileak EAEn daudenean), f), h) eta i) letretan adierazitako agiriak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko dira, transakzio elektronikoz bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eskaintako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

E.2.3.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

E.2.3.1.– Baldintza orokorrak.

Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAren instalazioaren ustiapenean bete beharreko baldintzak dira emisio atmosferikoek ez gainditzea ebazpen honetan ezarritako balioak, eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak jarraibide teknikoetan ezarritako eskakizun teknikoak betetzea.

Prozesuan zehar aireatzen den gai kutsatzaile oro bildu eta bide egokienetatik kanporatuko da, behar denean, emisio horien ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor honetatik salbuetsi ahalko dira emisio konfinatu gabeak, baldin eta teknikoki edota ekonomikoki atzeman ezin badira edo ingurunean oso eragin txikia dutela frogatua badago.

Neurri egokiak hartuko dira istripuzko emisioen probabilitatea murrizteko eta horien ondoriozko efluenteez giza osasunerako eta segurtasun publikorako arriskurik ez izateko. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldaketei eraginkortasunez aurre egiteko moduan. Era berean, instalazio horiek martxan ez dauden edo erabilgarri ez dauden aldien iraupena ahalik eta gehien murriztuko da.

Instalazioaren titularrek bete beharko dituzte abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuak (atmosfera kutsa dezaketen jarduerak gauzatzen dituzten instalazioak arautzen dituen) 5. artikuluan jasotako eskakizunak.

Atmosferaren arloko eskumenak dituen sailak argitaratutako jarraibide tekniko guztiak bete beharko dituzte honako elementu hauek: sekzioa, neurketa-gunea, laginketa-gunea, neurketa-por-tua, irisgarritasuna eta fokuen segurtasuna eta zerbitzuak.

Organo horrek foku berri bat baimendu ondoren, hura abiarazten denetik sei hilabete igaro baino lehen, ingurumen-kontrolerako erakunde batek egindako hasierako IKE txosten bat igorri beharko da. Nolanahi ere, epe hori luzatzeko eskatu ahalko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, betiere behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio.

E.2.3.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAren instalazioak honako foku hauek ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Fokuaren zenbakia	Fokuaren kodea	Emisio-fokuaren izena	Altuera	Barneko diametroa	Katalogazioa	Funtzionamendu-erregimena
1	48-17156-1	Lurrun-galdara	15 m.	0,5 m.	C	Sistematikoa
2	48-17156-2	Solidotze-egonkortzeko lerroa	3,8 m	0,4m.	C	Sistematikoa

Instalazioan badira, halaber, emisio lausoak sortzen dituzten prozesuak; adibidez, solidotze-egonkortzeko prozesuan ateratzen den hondakinaren biltegitratzea, tratatu beharreko hondakinen manipulazioa eta kamioien joan-etorriak. Emisio lauso horiek etenak dira.

Foku ez-sistematiko horietako bat urtean batez beste hamabi alditan baino gehiagotan funtzionatzen hasten bada, eta aldi bakoitzak ordubete baino gehiago irauten badu, edo, maiztasuna edozein dela ere, emisioen iraupen orokorra instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik gorakoa bada, foku hori emisio-foku sistematiko gisa araupetu beharko da.

E.2.3.3.– Emisioen muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean, atmosferara egiten diren emisioetan ez dira muga-balio hauek gaindituko:

Fokua(k)	Substantziak	Emisioen muga-balioak
1	KO	500 ppm
	NOx	300 ppm
2	Partikulak	5 mg/Nm ³
	GKOL	30 mg/Nm ³

Balio horiek baldintza hauekin lotuta daude: 273 K-ko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

Emisio-balioak betetzen diren ebaluatzeko, abenduaren 28ko 278/2011 Dekretuko 9. artikulua xedatutakoa beteko da. Ikusten bada emisioen muga-balioren bat ez dela betetzen, behar diren zuzenketa-neurriak hartu beharko dira luzamendurik gabe, eta, berehala, ez-betetzearen, zuzenketa-neurrien eta haien epeen berri eman beharko zaio ingurumenaren arloko eskumenak dituen sailari.

E.2.3.4.– Gasak bildu eta kanporatzeko sistemak.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo bigarren apartatuaren E.2.3.2 azpiapartatuan ezarritako goreneko kotatik behera. Sekzioek eta laginketa-puntuen kokapenak atmosferaren arloko sail eskudunak argitaratutako jarraibide teknikoetan ezarritakoa bete beharko dute.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusita dauden zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzaren jarraibide teknikoak bete beharko dira.

Emisio lausoak minimizatzeko, ihesak antzemateko ekipamenduak erabiliko dira, ingurumenaren kudeaketa egokia egingo da, eta instalazioa modu egokian diseinatuko da.

E.2.4.– Saneamendu-sarera isurketak egiteko baldintzak.

E.2.4.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota (fluxua)	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Isurketa-gunearen koordenadak
1	Industria-isurketa	Taladrinen eta olio-eduki txikiko emultsio oliotsuen lerroko efluentea	Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa	X: 502398.15 Y:4791902.92
		Karga organiko txikiko hondakin ez-oliotsuen efluentea		
		«hondar» frakzioa (azidoak, Cr VI eta karga organiko handiko hondakinak), tratatzen dituen huts-lurrungailuaren efluentea		
2	Ur beltzen isurketa			
3	Laborategiko isurketa			
4	Fabrikako euri-urak			

E.2.4.2.– Gehienez isur daitezkeen emari eta bolumenak.

1. isurketa. Industria-isurketa.

Eguneko bolumena (m ³):	106,8 m ³ /egun
Urteko bolumena	39.000 m ³ /urte

E.2.4.3.– Isurketen muga-balioak.

Saneamendu-sarera egindako isurketen parametro kutsatzaile bereizgarriak honako hauek izango dira soilik, eta bakoitzerako zehazten diren muga maximoak izango dituzte:

a) 1. isurketa: Industria-isurketa.

Parametro orokorrak			
Parametroa	Sinboloa	Unitatea	Isurketaren muga-balioak
Tenperatura	T	°C	45
pH	pH	pH unitateak	6 – 9,5
Solido esekiak guztira	GSE	mg/l	600
N – Amoniakala	N-NH3	mgN/l	300
Olio eta/edo koipeak (animalia- edo landare-jatorrikoak)	O eta K	mg/l	300
Olio mineralak	O eta K	mg/l	50
Detergente anionikoak		mg/LAS/l	40
Zianuroak guztira	CN -	mg/l	2
Sulfuroak	S =	mg/l	2
Kloruroak	Cl -	mg/l	(*)
Sulfatoak	SO4=	mg/l	1.500
Fluoruroak	F -	mg/l	50

2023ko urtarrilaren 20a, ostirala

Parametro orokorrak			
Parametroa	Sinboloa	Unitatea	Isurketaren muga-balioak
Fenolak		mg/l	50
Artsenikoa	As	mg/l	1,5
Antimonioa	Sb	mg/l	0,5
Barioa	Ba	mg/l	20
Kadmioa	Cd	mg/l	1,5
Kromoa guztira	Cr	mg/l	7,5
Kromoa guztira (eguneko batezbestekoa)	Cr	mg/l	0,75
Kromo hexabalentea	Cr+6	mg/l	0,5
Kobrea	Cu	mg/l	7,5
Eztainua	Sn	mg/l	10
Burdina	Fe	mg/l	30
Merkurioa	Hg	µg/l	50
Nikela	Ni	mg/l	5
Zilarra	Ag	mg/l	1
Beruna	Pb	mg/l	3
Selenioa	Se	mg/l	5
Zinka	Zn	mg/l	15
Toxikotasunaren neurketa Vibrio fischeri-ren bioluminiszentziak jasaten duen inhibizio bidez		Ekitox/m ³	50

(*) Kloruroen kontzentrazioa mugatu egingo da, isurketa hartzen duen HUAren influenteak ez dezan 2.000 mg/l-ko kontzentrazioa gainditu saneamendu-sareko erabiltzaile guztientzat.

Konposatu organikoak		
Konposatu organikoa	Sinboloa	Muga
Konposatu organiko halogenatuak	AOX	Muga espezifiko bat ezarri ahal izango da industria-isurketak araztegien efluentearen kalitatean zer eragin duen edo tratamendu-prozesuan sortutako hondakinaren (lohiak, errautsak, etab.) kudeaketa kontuan hartuta.
Alkil bentzeno sulfonato linealak	LAS	
Ftalatoak	DEHP	
Nonilfenolak eta nonilfenol etoxilatoak	NPE	
Hidrokarburo aromatiko poliziklikoak	PAH	
Bifenilo polikloratuak	PCB	
Poliklorodibenzodioxinak eta poliklorodibenzofuranoak	PCDD/PCDF	

Horrez gain, isurketen muga-balio hauek ezartzen dira 1. isurketa-puntutik datorren efluentea hartzen duen ur-masarako. Balio horiek betetzen diren ebaluatzeko, kalkulua egingo da honako hauek kontuan hartuta: azken ingurune hartzailerara egindako isurketa, eskualdeko hondakin-uren araztegi hartzailean murriztutako kutsadura, eta tratamendu-lerro bakoitzak efluenteari egiten dion ekarpena.

Parametroak	Isurketaren muga-balioak
Hidrokarburoen indizea (HI)	10 mg/l
Zianuro librea (CN-)	0,1 mg/l
Substantzia organohalogenatu adsorbagarriak (AOX)	1 mg/l
Artsenikoa (As)	0,05 mg/l
Kadmioa (Cd)	0,05 mg/l
Kromoa guztira (Cr)	0,15 mg/l
Kobrea (Cu)	0,5 mg/l
Beruna (Pb)	0,1 mg/l
Nikela (Ni)	0,5 mg/l
Merkurioa (Hg)	5 ug/l
Zinka (Zn)	1 mg/l

Ezingo da diluzio-teknikarik erabili, isurketaren muga-balioak lortzeko.

E.2.4.4.– Arazketa- eta hustuketa-instalazioak.

Industria-instalazio guztietarako arazketa-instalazioak edo hondakin-uren neurri zuzentzaileak enpresa eskatzaileak aurkeztutako agirien arabekoak izango dira, eta elementu hauek izango dituzte funtsean:

1.– Taladrinen eta olio-eduki txikiko emultsio oliotsuen lerroa:

- Haustura azidoa.
- Aire disolbatu bidezko flotagailua (DAF).
- Flotagailutik ihes egiten duten malutak atxikitze banda-iragazkia.

2.– Karga organiko txikoko hondakin ez-oliotsuen efluentea

- pH-aren doiketa
- Iragazketa prentsa-iragazkian.
- Hidrokarburo-bereizgailu batetik igarotzea.

3.– «Hondar» frakzioa (azidoak, Cr VI eta karga organiko handiko hondakinak):

- pH-aren doiketa
- Iragazketa prentsa-iragazkian.
- Hidrokarburo-bereizgailua.
- Huts-lurrungailua.

Kolektorera isuri aurretik, ur guztiak 80 m³-ko bi andeletan biltegitratzen dira, kalitate-kontrolerako; ondoren kolektorera ponpatzen dira.

Laborategian sortutako hondakinak, berriz, hondakinak tratatzeko instalazioan tratatzen dira.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK behar beste aldaketa egingo ditu arazketa-instalazioetan isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik; behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Aurkeztutako agirien arabera, kontrol-kutxatila bat jarriko da baimendutako hondakin-ur mota bakoitzerako; kutxatila horiek isurketen lagin adierazgarriak lortzeko behar diren ezaugarriak izango dituzte. Administrazioak ikuskatzeko sarbide zuzena duen lekuan kokatuko dira kutxatilak.

E.2.5.– Lurzorua babesteari dagozkion baldintzak.

Ebazpenen honen aztergaia den jarduera lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen II. eranskineko «Hondakin ez-metalikoak birziklatzea» 37.2 epigrafean sartuta dagoenez, ingurumen-organoaren aurrean lurzoruaren egoerari buruzko aurretiazko txosten bat aurkeztu da.

Aurkeztutako lurzoruaren egoerari buruzko aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK, honakoak egin beharko ditu:

– Materialen biltegitratze-eremua eta uren hustuketa-sistemaren egoera behar bezala mantentzen dela une oro ziurtatzera bideratutako jardunbide egokien aplikazioa proposatzea. Neurri horiek prebentziorako mantentze-lanen eskuliburuan sartuko dira eta bertan, ikuskapen- eta kontrol-programa eguneratu bat sartuko da.

– Egokitzapen-lanak egitea pitzadura edo arrailak agertu ez daitezen eta isurketak lurzorrura iragazi ez daitezen; izan ere, zola eremu batzuk oso zaharrak dira eta ez daude oso ongi kontserbatuta.

– Zoladuraren eta kubetoen egoera begiz ikuskatzea arrakalarik ez dagoela ziurtatzeko eta arrakalak egonez gero haiek konpontzeko. Sarriago begiratu beharko dira zola edo kubeto zaharrragoko eremuak eta ibilgailu astunen joan-etorri gehien jasaten dituzten eremuak.

Olio berriak (SDR-06) biltegitratzeko eremuko zolan eta kubetoetan olioak daukaten jarioen edo tanten zantzuak daudela ikusita, ontzi-aldaketa olio-jarioak eta -pilaketak ekiditeko moduan gauzatu behar dela azpimarratu behar da. Haatik, jarioak edo pilaketak gertatzen badira, berehala kendu beharko dira, eta kasuan kasu, kubetoa hustu beharko da.

Ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 16. artikuluko 2. apartatuari jarraikiz, lurzoruaren egoeraren txostenak aurkeztu beharko dira, gutxienez, 5 urtean behin, lege hori indarrean jartzen denetik aurrera.

Era berean, aurreko lerrokadan aipatutako araudian, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan eta urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuan ezarrita dauden lurzorua babesteko betebeharrak betetze aldera, sustatzaileak honako hauek aurkeztu beharko ditu:

– Oinarrizko txostena, abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren 20. artikuluan aipatutako epeak eta aldizkakotasunak beteta.

– Lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-dokumentuak, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 10.2 artikuluan ezarritako epeen arabera.

Nolanahi ere, sustatzaileak lurzoruen agiri bakar bat bidaliko du, ikerketa-lanak egiten eta lurzoruaren kalitatea leheneratzen diharduen erakunde egiaztatu batek egina, eta agiri horrek aipatutako txostenak jasoko ditu (lurzoruaren egoerari buruzko aldizkakako txostena, oinarrizko txostena, eta

lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-dokumentuak). Emandako agiriak aldatu edo agiri berriak eman behar diren bakoitzean, lurzoruen agiri bakar berri bat bidaliko da.

Sustatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu instalazioetan egindako aldaketek eragindako lur-mugimenduei dagokienez:

1.– Instalazioa baimenduta dagoen lurzatiaren barruan lurrak mugitzea dakarren aldaketa bat aurreikusiz gero:

a) Bat etorri ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 25. artikuluko 1.c) letrarekin, jardueraren sustatzaileak karakterizatu egin beharko ditu induskatu beharreko materialak (lurra, obra-hondakinak eta abar), jardun kutsatzaileen ondorioz erasan zaien ala ez egiaztatzearen, eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, horientzako kudeaketa modu egokiena zehaztearren.

b) Jarduketa horretan aurreikusten bada induskatu beharreko materialen bolumena 500 m³-tik gorakoa dela (zolak barne), edo jarduketa gauzatu bitartean gainditze hori antzemango balitz, nahitaezkoa izango da indusketa selektiborako plan bat aurkeztea, lurzoruaren kalitatea ikertu eta leheneratzeko erakunde egiaztatu batek egina. Indusketa-planak abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean adierazitako edukia jaso beharko du, eta ingurumen-organoak onartu beharko du hura egikaritu aurretik.

c) Induskatu beharreko bolumena 500 m³-tik beherakoa bada, aldaketaren jakinarazpenak honako informazio hau jaso beharko du:

– Jarduketaren sustatzaile den pertsona fisiko edo juridikoaren eta jarduketa gauzatuko duen kontratistaren identifikazioa.

– Jarduketaren eraginpeko tokiaren kokapen-datuak, baita Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroaren erreferentzia ere.

– Jarduketaren xede den gunearen mugaketa eta azalera. Jakinarazpenean, lurzattia eta jarduketa-gunea zehatz-mehatz non dauden jakitea ahalbidetzen duten planoak erantsiko dira.

– Jarduketaren deskribapen xehatua.

– Induskatuko diren materialen bolumena, zolak barne.

– Ingurumen-jarraipeneko lanen eta azken txostena egitearen arduradunaren identifikazioa; artikulua honetan aipatutako kasuetan erakunde egiaztatua izan beharko du.

– Jarduketa noiz hastea aurreikusten den.

d) Aurreko kasuetako edozeinetan, obra gauzatu ondoren, azken txostena bidali beharko da. Bertan, lurzoruen karakterizazioaren emaitzak adierazi beharko dira, baita induskatutako materialen berrerabilera edo kudeaketa egokia egiaztatzeko txosten bat ere. Indusketaren bolumena 100 m³ baino handiagoa bada, erakunde egiaztatu batek egingo ditu ingurumen-jarraipenerako lanak eta txostena.

e) Arau orokor gisa, «Kutsatutako lurzoruetan indusketa selektiboak egiteko gida»n jasotzen diren irizpideak beteko dira. Esteka honetan eskura daiteke gida:

<https://www.ihobe.eus/argitalpenak/kutsatutako-lurzoruetan-indusketa-selektiboak-egiteko-gida>

f) Soberakinak hondakindegian biltegitratuz hustu nahi izanez gero, Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak

ezarritakoari jarraikiz egingo da hondakinen karakterizazioa. Oro har, laginketa gauzatzeko, induskatu beharreko materialen karakterizazio-kanpaina diseinatzerakoan kontuan hartu behar diren oinarritzko irizpideei jarraituko zaie. Irizpide horiek abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean eta gidaren 10.2.6 zenbakian (Induskatu behar diren lurzoruen «in situ» laginketa) daude jasota.

g) Soberako materialak instalazio berean berrerabili ahal izateko, balio hau izan beharko dute material horiek: Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako EBA-B (industria-erabilera) balioaren azpitikoa. Horrez gain, lur horien hidrokarburo-edukia ezin izango da arriskutsua izan. Horretarako, egiaztatutako erakunde batek egin beharko ditu laginketa eta azterketa, urriaren 10eko 199/2006 Dekretuaren arabera, zeinaren bidez ezartzen baita lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeko sistema, eta zehazten baita erakunde horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa.

h) Lur garbitzat hartuko dira ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako EBA-Ak baino balio txikiagoak eta TPHetarako 50 mg/kg baino balio txikiagoak dituzten lurrak, eta, beraz, onartu egingo dira baimendutako betelanerako.

i) Substratu harritsu osasuntsua murrizketarik gabe kudeatu ahalko da. Lurzoru naturalaren parekoa den substratu harritsu meteorizatuaren kasuan, aurreko puntuetan ezarritako irizpidea beteko da.

j) Instalazioa baimenduta dagoen lurzatitik kanpo aldaketaren bat egitea aurreikusten bada (lurzoru berria okupatuz) eta okupatu nahi den lurzoru berriak lehenago izan badu ekainaren 25eko 4/2015 Legearen I. eranskinean aipatutako jardueraren bat, sustatzaileak lurzoru-arloko adierazpen bat lortu beharko du, egin nahi diren aldaketak egiten hasi aurretik.

Era berean, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22. artikuluko 2. apartatuaren arabera, lurraren kutsadura-aztarnak aurkitzen badira, horren berri eman beharko zaie dagokion udalari eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, sailburuordetza horrek ezar ditzan hartu beharreko neurriak, aipatutako 4/2015 Legearen 23. artikuluko 1.e apartatuari jarraikiz betiere.

E.2.6.– Zaratari buruzko baldintzak.

a) Behar diren neurri guztiak ezarriko dira, indize akustiko hauek gainditu ez daitezen:

a.1.– Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzan barrualdean entzungo den zaratari dagokion $L_{Aeq,60 \text{ segundo}}$ indizeak ezin izango ditu inoiz ere 40 dB(A) gainditu, 07:00ak eta 23:00ak bitartean, leihoak eta atea itxita daudela; horrez gain, L_{Amax} indizeak ezin izango ditu 45 dB(A) gainditu.

a.2.– Maila hauei egokitu behar zaie jarduera: etxebizitzan barrualdean entzungo den zaratari dagokion $L_{Aeq, 60 \text{ segundo}}$ indizeak ezin izango ditu inoiz ere 30 dB(A) gainditu, 23:00ak eta 7:00ak bitartean, leihoak eta atea itxita daudela; horrez gain, L_{Amax} indizeak ezin izango ditu 35 dB(A) gainditu.

a.3.– Jarduerak ez du 1. taulan adierazitakoa baino zarata handiagoa egingo, 4 m-ko garaieran neurtuta (egoera berezietan izan ezik; halakoetan, pantailatzeak saihesteko behar den garaieran neurtuko da), industria-esparruaren kanpoaldeko itxituraren perimetro osoan.

Zarata-indizea	dB(A)
L_d	75
L_e	75
L_n	65

1. taula: Industria-esparruaren kanpoaldeko itxituran bete beharreko zarata-mailak.

Abian den instalazioak, 1. taulan finkatutako mugak betetzeaz gain, ez du eguneko inolako baliotan ($L_{Aeq,d}$, $L_{Aeq,e}$ eta $L_{Aeq,n}$) 1. taulan adierazitako balioak baino 3 dB-etik gorako gehikuntzarik gaindituko.

Gainera, jardun-modu bat baldin badago, gainerako jardueretatik nabarmen berezia dagoena, jardun-modu horri lotutako zarata-maila bat zehaztu beharko da (L_{Aeq,T_i}). T_i jardun modu horren iraupen-denbora izango da. Maila horrek ez ditu 1. taulan finkatutako balioak 5 dB-etan gaindituko.

F) Ingurumena Zaintzeko Programa.

Sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta honako paragrafo hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da ingurumena zaintzeko programa:

F.1.– Emisio atmosferikoak kontrolatzea.

a) Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK emisioak kontrolatu beharko ditu informazio honen arabera:

Fokua	Fokuaren kodea	Fokuaren izena	Parametroak Neurketa	Metodoak	Kontrolen maiztasuna
1	48-17156-1	Lurrun-galdara	KO	UNE-EN 15058	KEEaren kontrola 5 urtean behin
			NOx	EPAren 7D metodoa	
2	48-17156-2	Solidotze-egonkortzeko lerroa	Partikulak	EN 13284-1	KEEaren kontrola 5 urtean behin
			KOG	UNE-EN 12619	

Aurreko taulan aipatutako neurketa guztiak Administrazioaren II. mailako ingurumen-lankidetzako erakunde (ILE) batek egin beharko ditu, urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan ezarritakoari jarraituz, eta aldizkako neurketa horiei buruzko txostenek Ingurumeneko sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduan eskatzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte, bereziki honako hauei dagokienez: neurketaren helburua eta plana, neurketen adierazgarritasuna, neurketa kopurua eta banakako neurketa bakoitzaren iraupena, eta erreferentzia-metodoak hautatzeko irizpidea.

Baimen hau eman baino lehen neurketarik egin ez den fokuen kasuan, enpresak aipatutako erregistro ereduarekin batera KEEaren txostena eta gauzatutako analisiak aurkeztu beharko ditu erakunde honek onetsi ditzan. Edonola ere, emisioen kontrolek eta baldintzek Sailburuordetzak ezarritako eskakizun tekniko guztiak bete beharko dituzte.

a) letran azaldutako emisio-foku baten kontrola egin behar den urtean, fokua horrek urtean hamabi aldiz baino gutxiagoko batez besteko maiztasunarekin funtzionatzen badu, emisio bakoitzak ordu-bete baino gehiago irauten duelarik, edo, bestela, edozelako maiztasunarekin, emisioaren iraupen globala instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik beherakoa bada, urte horre-

tan ez da beharrezkoa izango foku horren kontrolik egitea, eta hurrengo urtean egin beharko da, betiere kontroletik salbuesteko baldintzek irauten ez badute. Inguruabar hori dagokion urteko ingurumena zaintzeko programan justifikatu beharko da.

F.1.1.– Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egingo da eguneratutako dokumentazioarekin, honako hauetan ezarritakoari jarraikiz, betiere: 100/2011 Errege Dekretuaren 8. artikuluan (urtarrilaren 28koa, Atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen eta hura ezartzeko oinarritzko xedapenak finkatzen dituen) eta 278/2011 Dekretuaren III. eranskinean (abenduaren 27koa, Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak burutzen dituzten instalazioak arautzen dituen).

Erregistro hori eguneratuta eta ingurumen-ikuskatzaileen eskura egongo da.

F.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	UTM koordinatuak	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasunak	Kontrol mota
1	Industria-isurketa	X: 502398.15 Y: 4791902.92	Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak ezarritakoak IH, CN-, AOX, As, Cd, Cr, Cu, Pb, Ni, Hg, Zn	Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak ezarritakoa Hilean behin	Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak gauzatutako kontrolak ILE (kalkulu bidezko ebaluazioa)

Filtrotik irteten diren urei eta normalean alkalinoak direnei pH-a zuzentzen zaie isurketa-baimean adierazitako baloreetara iritsi arte, eta ur horiek bi biltegi osatutako isurketa-estazio batean biltegitratzen dira. Bertan lagin bat hartzen da eta zenbait parametro analizatzen dira. Analisisien emaitzak isurketa-mugen barruan badaude, urak Ur Partzuergoko kolektorera isurtzen dira eta horien azken helmuga Galindoko HUA da. Aitzitik, parametroetarikoren bat isurketa-mugetatik kanpo baldin badago, urak berriz bidaltzen dira prozesura, berriro tratatu daitezzen.

Isurketak bi depositutara bideratu, eta haietatik kolektorera ponpatzen dira, laborategiak horretarako baimena eman ondoren. Ponpaketa bidezko deskarga neurketa-ekipo hauek dituen kontrol-kutxeta baten bidez egiten da: pH-metroa, termometroa, eroankortasun-neurgailua eta emari-neurgailua.

Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK informazioa bidali beharko dio organo honi, pH-aren muga-balioa gaitzen dela detektatu den datari buruz eta urak berriro prozesura bideratzen diren datari buruz.

Enpresaren «lankidetzaren erakunde» batek egin eta egiaztatuko ditu kanpoan egiten diren kontrol guztiak (bai laginak hartzeko garaian, bai ondorengo analisiak egitean), eta goiko puntuetan adierazitako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak lagin hartu berri baten azterketa aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual adierazgarria.

Hauei bidaliko zaizkie isurketa-kontrolen emaitzak:

– Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, ebazpen honetako bigarren apartatuko C.6 azpiapartatua ezarritako epeak eta baldintzak betez.

F.3.– Jardueraren adierazleen kontrola.

Sustatzaileak jardueraren funtzionamenduaren adierazle diren parametroen segimendua egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko. Parametro horiek taula honetan jasota daude, eta dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera aurkeztu beharko dira:

Adierazlea	Unitatea	Maiztasuna
Energia-kontsumoa guztira	MWh	urteko
Energia-efizientzia (MJ/kudeaketa)	MJ/t	urteko
Ur-kontsumoa/kudeatutako hondakin tonak	m ³ /t	urteko
Isurketa industrialak/Helmuga	m ³	urteko
Euri-uren isurketak/Helmuga	m ³	urteko
Isuritako gai arriskutsuak	(kontzentrazioa)	urteko
Isuritako metalak	(kontzentrazioa)	urteko
KOLen isurketak (max., min., batezbestekoak, lagin kop.)/foku kontrolatu bakoitzeko	mg/Nm ³	urteko
KOLen isurketak guztira	g	urteko
KOLen isurketak guztira/materia organikoa daukaten hondakin tratatuen tonak	g/t	urteko
Azidoen isurketak (max., min., batezbestekoak, lagin kop.)/foku kontrolatu bakoitzeko	mg/Nm ³	urteko
Azidoen isurketak guztira	kg	urteko
Azidoen isurketak guztira/tratatutako azidoen tonak	Kg/t	urteko
Cr isurketak (max., min., batezbestekoak, lagin kop.)/foku kontrolatu bakoitzeko	mg/Nm ³	urteko
Cr isurketak guztira	kg	urteko
Cr isurketak guztira/kromoa daukaten hondakin tratatuen tonak	Kg/t	urteko
Tratatutako olio kantitatea	t	Urteko
Leheneratzaera bidalitako olio berreskuratuaren ehunekoa	%	Urteko
Balorizazio energetikora bidalitako olio berreskuratuaren ehunekoa	%	Urteko
Olioien dekantazio- eta zentrifugazio-lohiak	t	Urteko
Olioien tratamenduko HC frakzioa	t	Urteko
Tratatutako taladrina kopurua	t	Urteko
Egonkortutako hondakinen kopurua	t	Urteko
Zabortegira bidalitako hondakin egonkortuak	t	Urteko
Egonkortze-prozesuan erabilitako aglomeratzailea	t	Urteko
Hondakin arriskutsu balorizatuak / Sortutako hondakin arriskutsuak (araztegiko lohiak...)	%	urteko
Hondakin arriskugabe balorizatuak / Sortutako hondakin arriskugabeak	%	urteko
Istripuzko isurketekin lotutako gorabeheren kopurua	Kop./urte	urteko
Ekoscan/URTEA eta/edo ISO14001/URTEA eta/edo EMAS/URTEA	BAI/EZ Zein/urtea	urteko

(1) Adierazleen unitateak, ahal dela, ohikoak izango dira; hau da, emisio atmosferikoei buruzko datua bada kg/urte edo emaria eta kontzentrazioa adieraziko dira, horrela ematen baitira emisioei buruzko EPER datuak. Materialen datu bat bada, ahal dela, tonatan emango da, energiaren datua bada, kWh-tan, eta abar.

F.4.– Zarataren kontrola.

a) Indize akustikoen ebaluazioak egin beharko dira hiru urterik behin: L_d , L_e , L_n , L_{Aeq} , T_i eta $L_{Aeq,60}$ segundo. Lehenengo kontrol-urtean lortutako emaitzen arabera, ordutik aurrera neurketak beste maiztasun batekin egitea erabaki ahal izango da.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako ebaluazio guztiak II. mailako Ingurumen Lankidetzako Erakunde (ILE) batek egin beharko ditu urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz. Erakunde horrek UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren araberrako egiaztagiria eduki beharko du akustikaren arloan espazio- eta denbora-laginketa egiteko. Nolanahi ere, ingurumen-organoak ebaluazio horiek egiten dituzten erakundeek gaitasun tekniko egokia dutela zainduko du.

c) Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak emandako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

F.5.– Lurzoruaren eta lurpeko uren kontrola.

a) Ebazpen honen bigarren apartatuko D.2.6 azpiapartatuan eskatutako dokumentazioaren kaltetan izan gabe, hurrengo datu hauek aurkeztuko dira lurzoruan afektazio berri bat gertatu izanaren susmoa hauteman den kasuan:

– Aintzat hartutako aldiak izan diren gorabeherak, substantzia arriskutsuak direla-eta lurraren eta lurrazpiko uren kutsadura sortu ahal izan dutenak.

– Instalazioan hartutako neurrien egoera –zolen iragazgaiztea, drainatzeak, kubetak eta kutxatila– eta larrialdietan jarduteko baliabide egokiak eta nahikoak eskuragarri daudela adierazten duen adierazpena, teknikari eskudunak sinatua. Tresneria eta azalerak egoera onean daudela egiaztatzen, edo, hala badagokio, horietan antzemandako hutsuneak jasotzen dituen berriazko adierazpena jaso beharko du.

– Lurzorua edo lurpeko urak kutsatuta egon daitezkeela dioten adierazpena, halakorik balego, edo, bestela, horrelako aztarnarik ez dagoela egiaztatzen duen adierazpena.

b) Halaber, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko urtarrilaren 23ko Aginduari dagokionez jakinarazitako baldintzak aztertzean zehazten diren kontrolei kalterik egin gabe –agindu horrek Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa interpretatzeari eta aplikatzeari buruzko jarraibide teknikoak onartzen du–, eta lurzorua eta lurpeko uren egoera zehazteko oinarritzeko txosten bat eskatzeari lotuta, Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación de Residuos S.A. lurzorua eta lurpeko uren kalitatearen kontrola egin beharko du. Horretarako, gutxienez bi zundaketa egin beharko ditu urak ezaugarritzeko, ateratako lurzoru-zutabea ezaugarritzeko eta piezometro bana gaitzeko, eta horiek erabiliko dira lurpeko uren kalitatearen jarraipena egiteko. Zundaketak kokatzean, kontuan hartuko dira egon daitezkeen arrisku-iturriak eta lurpeko uren jarioa; hala, instalaziotik gorako eta beheko uren jarioa alderatu ahal izango da.

Paragrafo honetan jasotakoa betetzeko, aurkeztu beharreko informazioa urriaren 10eko 199/2006 Dekretuan xedatutakoaren arabera egiaztatutako erakunde batek egin beharko du, hala nola organo honek horretarako onartzen dituen jarraibideetan adierazitakoaren arabera.

F.6.– Emaitzen kontrola eta bidalketa.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txostenen eta azterketen emaitzak behar bezala erregistratu behar dira, eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidali, Ekonomiaren

Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webguneko bidalketa-prozedura telematikoari jarraikiz:

<https://www.euskadi.eus/baimena/ibb-ippc/web01-tramite/eu/>

Era horretan, aipatutako programak zehaztutako aldian egiten diren kontrol guztiak, ibilgura eta/edo itsasora isuritako urei dagozkienak izan ezik, ingurumena zaintzeko programarekin batera bakarrik aurkeztuko dira, eta erreferentziako urtea amaitu ondoren.

Ezarritako baldintzak urratzen diren kasuetan bakarrik bidali beharko zaio berehalako jakinarazpena Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, gertatutakoaren berri izan ondoren, betiere; horretarako helbide elektronikoa: ippc@euskadi.eus.

Horrez gain, urtean behin baino gehiagotan egiten diren kontrolak kontrola egiten den urteari dagokion programaren barruan baino ez dira bidaliko.

Emaitza horiek urtero igorriko dira, betiere martxoaren 31 baino lehen, eta txosten bat aurkeztu beharko da ingurumena zaintzeko programaren emaitzekin batera. Txosten horretan jasoko dira Babes- eta zuzenketa-neurrien funtzionamendua, prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak eta emaitzen analisia, eta bereziki aipatuko dira epe horretan izandako gorabehera nagusiak, haien kausa eta konponbideak, eta, halaber, laginak nola hartu diren zehaztuko da, aurrez aldetik zehaztu ez bada.

F.7.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina prestatu beharko du, eta bertan bildu beharko ditu aurkeztutako dokumentazioan proposatutako betebeharrak eta ebazpen honetan jasotakoak. Honako hauek zehaztu beharko ditu programa horrek: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu beharko ditu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearen ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

G) Prebentzio-neurriak eta funtzionamendu-baldintzak ohiz kanpoko egoeretan.

G.1.– Instalazioa gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Urteko mantentze-lan programatuei eta martxan jartze eta geldiarazteko epeei dagokienez, enpresak sor litezkeen emisioen eta hondakinen kalkulua egin beharko du eta kudeaketa- eta tratamendu-proposamena egin beharko du, kasuan kasu.

Instalazioa geldiaraztean nahiz abiaraztean, mantentze-eragiketetan eta ohiz kanpoko egoeretan sortutako hondakinak kudeatu beharko dira, bigarren apartatuko E.2.2 azpiapartatuan ezarritakoarekin bat etorriz. «Instalazioan ekoiztutako hondakinen kudeaketa zuzena bermatzeko baldintzak» jarraitu beharko dira, baina ez da beharrezkoa izango hondakin horiek baimendutako hondakinen zerrendan jasota gotea.

G.2.– Jarduera etetea.

Jarduerari lege hauek aplikatu behar zaizkio: 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzorua ez kutsatzeari eta kutsatutakoa garbitzeari buruzkoa, eta 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa,

kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide eta estandarrak ezartzekoa. Horrenbestez, Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedura hasi beharko du, bi hilabeteko epea agortu baino lehen, jarduera behin betiko uzten duenetik hasita, ekainaren 25eko 4/2015 Legeak 31.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Jarduera utzi baino lehen, Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK instalazioetan dauden hondakin guztiak kudeatu beharko ditu ebazpen honen bigarren apartatuko E.2.2 azpiapartatuan ezarritakoarekin bat etorritz.

G.3.– Jarduera aldi baterako etetea.

Jarduera aldi baterako uztea eskatuz gero, Industriako Isurpenen Erregelamendua onartzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 13. artikuluan arautu bezala, Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK, aldi baterako uztearen eskabidearekin batera, dokumentu bat bidali beharko du instalazioa jardunik gabe egonda ere aplikagarriak zaizkion ingurumen-baimen integratuko kontrolak eta baldintzak nola beteko dituen adierazteko.

Era berean, instalazioa berriz abiarazi baino lehen, instalazioen funtzionamendu ona ziurtatu beharko da, ingurumenean eragina izan dezakeen isurketa edo emisio oro saihesteko.

G.4.– Ezohiko funtzionamendu-kasuan aplikatzeko prebentziozko neurriak eta jarduketak.

Proiektuaren dokumentazioan jasotako proposameneko egoera arruntetatik kanpoko funtzionamendu-baldintza eta prebentzio-neurriei kalterik egin gabe, ondorengo paragrafoetan adierazten diren baldintzak bete beharko dira:

a) Instalazioen prebentziozko mantentze-lanak.

Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere istripuz isurketak edo ihesak daudenean, kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesik izanez gero, lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da honako hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztasuna), biltegitzeko neurri bereziak (substantzia arriskutsuak), gerta litezkeen ihesei antzemateko neurriak edo gehiegizko betetzeaz ohartarazteko alarma-sistemak, fabrikako kolektoreen sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitu beharra, maiztasuna, garbiketa mota) eta lurzoru gaineko jarioak biltzeko sistemak.

Aurreko lerrokadan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetoetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzoru kutsa dezakeen edozein egoera prebenitzeko. Aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren eta ingurune urtarraren kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko sistemak (arazketa, minimizazioa, etab.) eta zaintza- eta kontrol-ekipoak egoera onean daudela bermatzeko neurriak jasoko dira.

b) Halaber, erregistro bat eduki beharko da, aldizka egindako mantentze-lanak eta hautemandako gorabeherak jasota uzteko.

c) Instalazioan ekoiztu eta kudeatzen diren hondakinak, olioak, erregaiak, gehigarriak, etab., manipulatuak lurzoru eta urak kutsatzeko arriskua eragin dezakeenez, isurketa, jario edo ihesen eragina jasan lezaketen lurzatiaren azalera osoak iragazgaiztuta mantenduko dira.

d) Hauts-itxurako produktuak biltegitzeko, silo itxiak edo hautsa xurgatzeko sistemak dituzten pabiloi estali eta itxiak eduki beharko dira.

e) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabana-tzeko moduan biltegitratuko dira.

f) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, biltegitratzeko instalazio horiek bete egin beharko dituzte produktu kimikoak biltegitratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak.

g) Larrialdirik gertatuz gero, berehala eta eraginkortasunez esku hartzeko beharrezkoak diren material guztiak edukiko dira, kantitate nahikoan: berriro ontziratzekeo erreserbako edukiontzia, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isurketei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontzia, hesiak eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

h) Protokolo edo prozedura dokumentatu bat izango da, kubetoak husteko maniobraren kontrol operatibo gisa balioko duena. Hala, eraginkortasunari eragin diezaioketen produktuen jarioak tratamendu-instalaziora joatea saihestu beharko da.

i) Pabiloien barruan zolak garbitzean sortutako ura tratamendu-lerrora bideratuko da.

j) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

k) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta uste-kabeko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak eraginkorrak izan daitezzen.

l) Ingurunean edo jardueraren kontrolean kalteak eragin ditzakeen gorabeheraren edo ezohiko gertaeraren baten aurrean, sustatzaileak gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri berehala eman beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari (zuzentzeko edo eusteko neurri egokiak hartu ondoren), horretarako gaitutako helbide elektronikoaren bitartez: ippc@euskadi.eus. Jakinarazpenean, alderdi hauek adierazi beharko dira gutxienez:

- Gorabehera mota.
- Jatorriak eta kausak (unean zehaztu daitezkeenak).
- Zuzentzeko edo eusteko neurriak, berehala aplikatu direnak.
- Sortutako ondorioak.
- Halakorik badago, epe laburrera aurreikusitako jarduketak.

m) Gorabehera edo arazo larriren bat edo ezusteko isurketa bat egonez gero, SOS DEIAK eta Bilboko Udala jakinaren gainean jarri behar dira. Ondoren, gehienez ere 48 orduko epean, istripuaren ondorioz sortutako egoera zehaztasunez jasotzen duen txosten bat bidali beharko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari. Txosten horretan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

- Gorabehera mota.
- Gorabehera non, zergatik eta zer orduan gertatu den.
- Gorabeheraren iraupena.

- Ustekabeko isurketa izanez gero, emaria, isuritako gaiak eta ingurune hartzailean antzeman daitekeen eragina jaso beharko dira, ingurune hartzailearen analisia barne.
- Mugak gaindituz gero, emisioari buruzko datuak.
- Eragindako kalteen zenbatespena.
- Hartutako zuzenketa-neurriak.
- Berriro gerta ez dadin aurreikusitako neurriak.
- Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

Baimenaren baldintzak urratzen dituen isurketen bat gertatzen bada eta, gainera, isurketa horrek pertsonen osasunerako arriskua badakar edo sistema naturalen orekari modu larrian kalte egin badiezaioke, titularrak berehala etengo du isurketa hori, eta, horrez gain, gertaeraren berri eman beharko die Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Uraren Euskal Agentziari eta babes zibilean eta ingurumenaren arloan ardurak dituzten organismoei, baita SOS DEIAK (112) larrialdi-zerbitzuei ere, behar diren neurriak har ditzaten.

n) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Betebehar hori betetzen dela egiaztatzeko, erakunde eskudunek emandako egiaztagiria aurkeztuko zaizkio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari.

H) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egiturari eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahalko dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, babes- eta zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa aldatu egin daitezke jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

I) E-PRTR jakinarazpena.

Urtean behin, martxoaren 31 baino lehenago, Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAK aurreko urtean atmosferara eta uretara egindako emisioei, eta sortutako hondakin mota guztiei buruzko datuen ingurumen-adierazpena igorriko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, E-PRTR-Euskadi Kutsatzaileen Emisio eta Transferentzien Inbentarioa egiteko eta eguneratuta edukitzeko, 508/2007 Errege Dekretuarekin eta ingurumena zaintzeko programarekin bat etorriz.

Informazio hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz bidaliko da.

Ingurumen-adierazpena publikoa izango da, uztailearen 18ko 27/2006 Legearen xedapenei jarraikiz. Lege horren bidez, informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, une oro bermatu beharko da Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

J) Instalazioaren aldaketak.

Instalazioetan egiten diren aldaketa guztien berri eman behar da. Aldaketak jakinarazteko, oso-rik bete behar da helbide elektronikoa honetan ageri den formularioa:

https://www.euskadi.eus/contenidos/serv_proc_autorizacion/p_autho_20183895085814/procedures/proc_20183895329689/eu_def/adjuntos/Formulario_modificaciones.doc

Urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.1 artikulua aldaketa funtsezkotzat jotzeko irizpideak ezartzen ditu (errege-dekretu horrek Industriako emisioen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen du).

Nolanahi ere, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, irizpide horiek orientagarriak dira, eta ingurumen-organoak kalifikatuko du eskatutako aldaketa, funtsezkotzat edo ez-funtsezkotzat jota, betiere Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen (uztailaren 1eko 16/2002 Legea) 10. artikuluan ezarritako irizpideak betez.

Orobat, egin nahi den aldaketa Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2019 Legearen 7.1.c eta 7.2c artikuluan xedatuta badago.

Baldin eta aldaketak lurzoru berria okupatzea aurreikusten badu eta aipatutako lurzorian lurzoria kutsa dezaketean jarduerak edo instalazioak badaude edo izan badira, aldaketa gauzatu aurretik, hartu beharreko kokalekuaren lurzoru-kalitatearen deklarazioa eduki beharko da, Lurzoria kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritakoarekin bat etorritik».

Hirugarrena.– Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 5.d) artikuluan xedatutakoari jarraikiz, hondakinak kudeatzeko eta ongarriak ekoizteko jarduerari dagokionez, zeina ebazpen honen xede baita, gerta litekeen titulartasun-aldaketa oro jakinarazi beharko dio Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAk Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, azken horrek onar dezan.

Laugarrena.– Ingurumen-baimen integratu honetan ezarritako baldintzak ez betetzea arau-hauste astun edo oso astun gisa tipifikatuta dago Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren testu bateginaren 31. artikuluari jarraituz, eta aipatutako legearen 32. artikuluan jasotako zigorrak ezartzea ekar dezake.

Bosgarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Sociedad Anónima de Descontaminación y Eliminación SAri, Bilboko Udalari, ingurumen-baimen integratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Seigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jar dakioko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 17a.

Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordea,
AMAIA BARREDO MARTÍN.